ESKORIATZAKO UDALA

ESKORIATZAko kiroldegiko instalazioetan egin beharreko kirol-jarduerak kudeatzeko, planifikatzeko, emateko, gauzatzeko eta ebaluatzeko zerbitzuak emateko kontratua esleitzeko, arau harmonizatupeko prozedura irekia arautuko duten baldintza partikularren agiria. Zerbitzu horien barne sartzen dira ere zerbitzu osagarriak, hala nola igerilekuetako zaintza eta uretako sorospena zerbitzuak, mantentze-lanak, koordinazioa, jarduera fisikoa egiteko orientazio zerbitzua, harrera, zuzendutako jardueren zerbitzuak eta muskulazio-gelako aholku-zerbitzua; eta, hori guztiori, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuz.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

AURKIBIDEA

EZAUGARRI PARTIKULARREN TAULA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. baldintza. Araubide juridikoa.

2. baldintza. Kontratazio Organoa eta Kontratazio Mahaia

3. baldintza. Kontratuaren arduraduna.

4. baldintza. Kontratuaren helburua eta beharra.

5. baldintza. Kontratuaren prezioa eta balioa.

6. baldintza. Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua.

7. baldintza. Kontratuari kalkulatutako balioa.

8. baldintza. Kreditua egotea.

9. baldintza. Egikaritze epea.

10. baldintza. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak.

11. baldintza. Prezioak berrikustea.

II. KAPITULUA. LIZITAZIOA.

12. baldintza. Kontratatzeko gaitasuna.

13. baldintza. Sailkapena eta kaudimena.

14. baldintza. Kaudimena kanpoko bitartekoekin osatzea.

15. baldintza. Kaudimen baldintzak zehaztea.

16. baldintza. Prozedura.

17. baldintza. Publizitatea.

18. baldintza. Esleipen irizpideak.

19. baldintza. Bermea.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

III. KAPITULUA. LIZITAZIO PROZEDURA.

20. baldintza. Kontratuak prestatzea.

21. baldintza. Itunak egiteko askatasuna.

22. baldintza. Proposamenak aurkeztea.

23. baldintza. Proposamenen forma eta edukia.

24. baldintza. Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzea, baloratzea eta proposamenak irekitzea.

25. baldintza. Kontratua esleitzea.

26. baldintza. Kontratua egiteari uko egitea.

27. baldintza.- Kontratua burutzea eta kontratuaren forma.

28. baldintza. Kontratuaren edukia.

IV. KAPITULUA KONTRATUA EGIKARITZEA

29. baldintza. Kontratua egikaritzea eta betetzea.

30. baldintza. Kontratistari eska dakizkiokeen betebeharrak.

31. baldintza. Kontratua luzatzea.

32. baldintza. Kontratuaren egikaritzea ebaluatzea eta zehapenak.

33. baldintza. Fakturazioa eta ordainketa modua.

34. baldintza. Datuen babesari eta konfidentzialtasunari buruzko baldintza.

35. baldintza. Kontratuak aldatzea.

36. baldintza. Kontratua etetea.

37. baldintza. Kontratuaren lagapena.

38. baldintza. Kontratua subrogatzea.

39. baldintza. Azpikontratazioa.

40. baldintza. Kontratua suntsiaraztea.

V. KAPITULUA. ERREKURTSOAK, JURISDIKZIOA ETA ARBITRAJEA.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

41. baldintza. Errekurtso berezia.

42. baldintza. Jurisdikzio eskuduna.

43. baldintza. Arbitrajea.

44. baldintza. Auzitegiak.

45. baldintza. Onarpena.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

ESPEDIENTEA: 2026IKIE0007

kirol zerbitzua

EZAUGARRI PARTIKULARREN TAULA

0. BOTERE ESLEITZAILEA:	
0.1. Botere esleitzailea:	ESKORIATZAKO UDALA
0.2. Kontratazio organoa.	Udalbatzarra.
0.3. Kontratuaren arduraduna:	Kontratuaren arduradunaren ahalmenak ESKORIATZAKO Udaleko kirol-arloko zinegotziak baliatuko ditu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

1. KONTRATAZIO MAHAIA:	
Mahaiburua:	Alkate-Udalburua edo berak eskuordetutako zinegotzia.
Idazkaria:	Udal idazkari-kontuhartzailea edo berak eskuordetutako funtzionarioa.
Mahaikideak:	Udal gizarte langilea. Udaleko kontuhartzailetza arloko teknikaria. Udal idazkari-kontuhartzailea

2. KONTRATUAREN IDENTIFIKAZIOA:	
2.1. Kontratuaren gaia:	ESKORIATZAko kiroldegiko instalazioetan egin beharreko kirol-jarduerak kudeatzeko, planifikatzeko, emateko, gauzatzeko eta ebaluatzeko zerbitzuak emateko kontratua. Zerbitzu horien barne sartzen dira ere zerbitzu osagarriak, hala nola igerilekuetako zaintza eta uretako sorospena zerbitzuak, mantentze-lanak, koordinazioa, jarduera fisikoa egiteko orientazio zerbitzua, harrera, zuzendutako jardueren zerbitzuak eta muskulazio-gelako aholku-zerbitzua; eta, hori guztiori, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuz.
2.1.1. Kontratuaren beharra:	Zerbitzu horiek, gaur egun, enpresa bakar batekin kontratatuta daude, kontratazio-espedientearen eta, ondorioz, adjudikazio bidez. Egungo kontratua 2027/01/31n amaitzen denez, Eskoriatzako Udalak erabaki du kontratazio prozedura bat hastea zerbitzu horiek eguneratzeko eta horien jarraipena Udalaren beharren arabera eta modu egokian bermatzeko.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

	Definitutako kontratua zerbitzu-kontratutzat jotzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 12. artikuluaren eta ondorengoen arabera (lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).
2.2. Kontratu mota:	Emakida ☐ Hornidura ☐ Zerbitzuak ☒ Obrak ☐
2.3. Eremu geografikoa:	ESKORIATZA
2.4. Sortatan banatuta:	BAI ☐ /EZ ☒
2.5. Sortatan ez zatitzearen justifikazioa:	Lizitazio hau ez da sortatan banatzen; izan ere, kontratuaren xedean jasotako prestazioak modu independentean gauzatzeak zaildu egingo luke kontratua ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea.
2.6. CPV kodigoa:	92600000-7 Kirol zerbitzuak.
2.7. Lote kopuruaren muga:	Ez dagokio.
3. PROZEDURA, TRAMITAZIOA ETA ADJUDIKATZEKO MODUA.	
3.1. Prozedura mota	Aurreikusitako kostu ekonomikoagatik: ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENPEKOA.
	Irekia.
3.2. Tramitazioa	Arrunta ☒ Presazkoa ☐
3.3. Eskaintzak aurkezteko modua	ELEKTRONIKOKI
3.4. Adjudikazio modua	Irizpide bakarra ☐/Askotariko irizpideak ☒
4. KONTRATUAREN IRAUPEN EPEA:	
4.1. Kontratuaren hasierako iraupena:	BI (2) urte, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera.
4.2. Luzapena:	BAI ☒ Iraupena: urtebete (1) kontratua amaitzen denetik + urtebete (1) lehen luzapena amaitzen denetik. Kontratuaren iraupena, guztira, ezingo da izan LAU (4) URTE baino handiagoa. EZ ☐
	Urte bat gehi jarraiko beste bat, enpresa kontratistak berariaz uko egiten ez badio. Uko egite hori gertatzen bada, Administrazioari jakinarazi beharko zaio, kontratu honen mugaeguna baino sei hilabete lehenago gutxienez. Eta, aitzitik,

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	administrazioak kontratua salatu nahi badu, esleipendunari jakinarazi beharko dio mugaeguna baino hiru hilabete lehenago gutxienez. Kontratua amaitu baino sei hilabete lehenago, Jarraipen Batzorde bat sortuko da, zinegotziek, funtzionario teknikoek eta enpresa adjudikazioduneko langileek osatua. Era berean, dagozkion gestioak egin beharko dituzte, kontratua amaitzen denean eta luzatzeko aukera agortuta dagoenean kontratazio-prozesu berria prest egon dadin. Kontratua azkentzeko arrazoiak izango dira konkurtsoa eskatzea, porrot-aitorpena edo ordainketa-etendura, pertsona juridikoa azkentzea edo pertsona fisikoa hiltzea edo desgaitzea, bai eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen 49. artikuluan (Kontratatzeko debekuak) aipatzen diren gainerako inguruabarrak ere.
5. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:	
5.1. Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua (BEZa gabe):	404.312,17 € Pertsonal gastuak: 262.710,96 Gizarte Segurantzako gastuak.: 81.440,40 Langileei lotutako gastuak: 10.508,44 Gastu orokorrak: 35.465,98 Mozkin industriala: 14.186,39 Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: 404.312,17
5.2. Aplikatu beharreko BEZ mota:	(% 21) 84.905,56
5.3. Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua, BEZa barne:	489.217,72
5.4. Aurrekontuaren banakapena	Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua Zerbitzua / URTEKO ORDUAK / Prezioa orduko BEZik gabe / Urtekoa guztira BEZik gabe / BEZa / Urtekoa guztira BEZarekin

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	Jarduera fisikoko begiraleen laguntza teknikoa	2902,50	34,83	101.087,02	21.228,27	122.315,30
	Uretako salbamendua eta sorospena	3912,25	32,21	126.018,54	26.463,89	152.482,43
	Aholkularitza teknikoa eta koordinazioa	931	38,20	35.562,32	7.468,09	43.030,41
	Sarrerak zaintzea eta kontrolatzea	2021,50	32,21	65.115,08	13.674,17	78.789,25
	Jarduera fisikoaren orientazioa	661	38,20	25.248,86	5.302,26	30.551,13
	Mantentze-lanak eta kontserbazioa	1592	32,21	51.280,34	10.768,89	62.049,21

5.3. Kontratuaren balio zenbatetsia:	Balio zenbatetsia. – 2.051.821,23 €					
	2027	2028	2029	2030	2031	TOTAL
	470.209,03 €	512.955,30 €	512.955,30 €	512.955,30 €	42.746,28 €	2.051.821,23 €

6. AURREKONTU-APLIKAZIOA ETA NAHIKOA KREDITU EGOTEA:	
6.1. Aurrekontu-aplikazioa	SPKLren 3. xedapen gehigarrian ezarritakoaren babesean, kontratatu beharreko zerbitzuak hurrengo ekitaldian, hau da, 2027an, emango direnez, kontratazio-espediente hau aldez aurretik izapidetzen da, eta, beraz, kontratuaren adjudikazioa baldintza etengarri baten mende geratzen da: kreditu egokia eta nahikoa egotea kontratutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko dagokion ekitaldian. Halaber, aurrekontu gaietako organo eskudunak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu gordetzeko.
6.2. Nahikoa kreditu egotea	BAI ☒ EZ ☐

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

7. PREZIOA ZEHAZTEKO ETA BERRIKUSTEKO SISTEMA:	
7.1. Prezioa zehaztea	Unitateko prezioak ☒ Oroharreko prezioan ☐ Kanona ordaintzea ☐
7.2. Prezioak berrikustea:	BAI ☐ EZ ☒

8. ALDAKETAK:	
8.1. Aldaketen onargarritasuna	Aldaketak aurreikusten dira. (% 20) SPKLren 204. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratu honetan aurreikusitako aldaketa-kasuak honako hauek dira: a) Beharrezko zerbitzu orduak gehitzea edo gutxitzea, benetako eskariaren arabera.
9. BERMEAK:	
9.1. Behin-behineko bermea:	BAI ☐ EZ ☒
9.2. Behin betiko bermea: adjudikazio zenbatekoaren % 5.	BAI ☒ EZ ☐
10. SUBROGAZIOA	
	APLIKATZEN DA ☒ EZ DA APLIKATZEN ☐
	Baldintza teknikoen agirian erantsitako koadroaren arabera.
11. AZPIKONTRATAZIOA	
BALDINTZA PARTIKULARRAK	● Adierazi beharko dute azpikontratatuko den, zenbatekoa eta enpresaren izena edo profila adierazi beharrik gabe: A artxibo elektronikoan. ● Azpikontratazioaren mugak. SPKLn aurreikusitakoak.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

12. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK	
Ingurune-, gizarte- eta lan-baldintzak	1.- Lan-eskubideen arloan Esleipendunak, kontratua egikaritzean, ekoizpen-katean zehar oinarrizko lan-eskubideak errespetatzen direla bermatuko du, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak betetzeko eskatuz, besteak beste, askatasun sindikalari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak, behartutako edo nahitaezko lana ezabatzeari buruzkoak, arrazarengatik, kolorearengatik, sexuarengatik, erlijioarengatik, iritzi politikoarengatik, jatorri nazionalarengatik edo jatorri sozialarengatik enpleguaren eta okupazioaren arloko diskriminazioa ezabatzeari buruzkoak eta haurren lana abolitzeari buruzkoak". 2.- Hizkuntza arloan. Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea. Araubide hori Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezartzen da eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatuta dago, besteak beste, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuan, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuan, eta Eskoriatzako Udalaren Euskararen Erabilera Planean. 3.- Emakumeen eta gizonen berdintasun arloko baldintzak Enpresa esleipendunak, kontratua egikaritzerakoan, ezarri beharko ditu emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzen duten neurriak, enplegurako sarbideari, sailkapen pertsonalari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, ordainsariei, kalitateari, lan egonkortasunari, eta lanaldiaren iraupenari eta antolakuntzari dagozkienak, baita bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateratzen laguntzen dizkietenak ere kontratuaren egikaritzera atxikitako langileei, 3/2007 Lege

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	Organikoak, martxoaren 22koak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoan, xedatutakoari jarraikiz. Enpresa esleipendunak hizkera ez sexista erabili beharko du kontratu hau egikaritzerakoan sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero rol eta identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu. 4.- Laneko segurtasun eta osasun arloko baldintzak. Enpresa kontratatzaileak bete beharko ditu laneko segurtasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak, bai eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektibotik eratorritakoak ere. Enpresa kontratatzaileak kontratuaren xedeari atxikitako langileen osotasunari eta osasunari eragin diezazkieketen arriskuak zorrozki saihesteko nahitaezko edo beharrezko diren laneko segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko ditu. Kontratuaren xedearen nolakotasunak eskatzen duenean kontratistaren langileek (edo, hala badagokio, azpikontratistarenak) Administrazio kontratatzailearen zentroetan prestazioren bat egin behar izatea, non administrazioaren beraren langileek zerbitzuak ematen dituzten, enpresa eta langile autonomo guztiek, jarduera hasi aurretik, beren artean elkarlanean aritu beharko dute eta egin beharreko jardueren arrisku espezifikoen inguruko informazioa partekatu bakoitzaren lanak beste enpresako langileei eragin diezaieken neurrian. Enpresek beren langileei informazioa emango diete jarduerak aldi berean egitetik eratorritako arriskuen inguruan, eta beharrezko koordinaziorako bitarteko egokiak ezarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan izango da laneko arriskuak ebaluatzean eta dagozkion prebentziozko jarduerak planifikatzean. 5.- Datuen babesaren arloko baldintzak.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	Datuen babesari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, zure datuen tratamenduaren arduraduna ESKORIATZAKO Udala da (aurrerantzean, arduraduna). Lizitazio honetan parte hartzeagatik lizitatzaileek ematen dizkioten datuak honako helburu hauetarako tratatzeko legitimazioa du arduradunak: a) Lizitatzaileek lizitazioan duten partaidetza kudeatzea. Beren hautagaitza aurkeztean, pertsona horiek baliozkotasunez emandako adostasunaren bidez geratuko da legitimatuta tratamendu hori. b) Esleipendunaren datuak erabiliko dira alderdien artean sortzen den harreman juridikoa kontrolatzeko eta gauzatzeko. Kontratuaren zerbitzuen prestazioa arautuko duen kontratua betearaztearen ondorioz dago legitimatuta tratamendua. c) Lizitatzaileen eta esleipendunen datuak argitaratzea Eskoriatzako Udalak egokitzat jotzen dituen bitartekoen bidez, bereziki Udalaren web orriaren bidez, zeinak, besteak beste, kontratazioei eta hornitzaileei buruzko informazioa jasotzen baitu. Helburu hori SPKLk baimentzen du. Izaera pertsonaleko datuak harremanak irauten duen bitartean soilik tratatu eta gordeko dira, eta harremana amaitu ondoren, arduradunak datuak tratatzeko eta/edo gordetzeko legitimazioa duen bitartean, indarrean dagoen legeriak ezarritako epeen arabera. Datuak tratatzeko jasotako datu pertsonalei dagokienez, lizitatzaileek datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta eramateko eskubidea dute. Halaber, egoera jakin batzuetan, lizitatzaileek eskubidea izango dute beren datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko. Kasu horretan, arduradunak datuak tratatzeari utziko

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	dio, eta erreklamazioak egiteko edo defendatzeko baino ez ditu gordeko. Eskubide horiek erabiltzeko idazkia bidali beharko zaio arduradunari, ezaugarrien taulan adierazitako harremanetarako datuen bidez, indarrean dagoen legediak jasotzen duen moduan. Era berean, erreklamazioak edonoiz zuzendu ahal izango zaizkio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari edo arduradunari, erakunde horrek horretarako gaituta dituen formularioen bidez. Inprimaki horiek webgune honetan daude eskuragarri: https://www.avpd.euskadi.eus Eskoriatzako Udalaren ardurapeko datu pertsonalak eskuratu beharko balira zerbitzua emateko, esleipenduna litzateke horiek tratatzearen arduraduna datuen babeserako araudiaren ondorioetarako. Kasu horretan, tratamendu horren baldintzak arautzen dituen kontratu bat formalizatu beharko da, eta gutxienez honako alderdi hauek jaso beharko dira: a) Datuak Eskoriatzako Udalak ematen dizkion jarraibide dokumentatuen arabera bakarrik tratatzeko konpromisoa, eta Eskoriatzako Udalari jakinarazi beharko dio, esleipendunaren iritziz, datuak babesteko araudia hausten duen edozein ohar. Eskoriatzako Udalaren jarraibideen menpe egongo dira ere tratamenduaz arduratzen diren azpi-arduradunak eta Eskoriatzako Udalak aldez aurretik baimendu beharko dituen nazioarteko datu-transferentziak. b) Esleipendunak tratamenduaren helburuak eta bitartekoak zehazten baditu, arduraduntzat hartuko da, eta datuak babesteko araudian ezarritako legezko erantzukizunei lotuta egongo da. c) DBEOren 32. artikuluan xedatutakoa betetzeko, arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko neurri tekniko eta antolakuntza-neurri egokiak aplikatzeko eta eguneratzeko konpromisoa, betiere

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	kontuan hartuta teknikaren egoera, aplikazio-kostuak eta tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak, bai eta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunentzako probabilitate- eta larritasun-arrisku aldakorrak ere. d) Datuak Babesteko Erregelamendu Nagusian (aurrerantzean, DBEO) eta dagokion Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen direla frogatzeko beharrezkoa den informazio guztia Eskoriatzako Udalaren esku jartzea. Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak edo honek baimendutako beste auditore batek auditoretzak, ikuskapenak barne, egiten utzi eta laguntzeko konpromisoa hartu eta bere burua behartzen du. e) Baldintza-agiriko tratamenduak egiteko DBEOren 35. artikuluaren eraginaren ebaluazioa egin behar bada, esleipendunaren konpromisoa Eskoriatzako Udalari laguntzeko inpaktu-ebaluazioak eta aurretiazko kontsulta egiten. f) Esleipendunak Eskoriatzako Udalari jakinarazi beharko dizkio, horren berri izandakoan eta bidegabeko atzerapenik gabe, bere kargura dituen datu pertsonalen segurtasunean izandako urraketak, eta gorabehera horiek dokumentatzeko eta jakinarazteko garrantzizko informazio guztia. g) Tratamendu-jardueren erregistroa mantentzea, DBEOren 30.5 artikuluan aurreikusitako salbuespena aplikatu behar denean izan ezik. h) Kontratuaren helburua bete ondoren, esleipendunak, Eskoriatzako Udalaren aukeran, betebehar hauek izango ditu: - Dauden datu pertsonal guztiak eta kopiak ezabatzea, legezko arauren batek datu horiek gordetzeko beharra ezartzen ez badu. Datuak gordetzea, eta kasu horretan, ez da bidezkoa izango datu pertsonalak ezabatzea edo

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	- tratamendu-zerbitzuak amaitu ondoren, datu pertsonal guztiak itzultzea, eta egin ahal izan dituen kopiak ezabatzea. Ezaugarrien taulan hala adierazten bada, eta, kontratistak tratamenduaren Arduradunaren kontura diren datu pertsonalak tratatzea eskatzen duten kontratuak gauzatzeari buruzko 95/79/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamenduko 28.2 artikuluan (2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalak tratatzearen eta datu horien zirkulazio askearen inguruan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) ezarritakoari kalterik egin gabe, agirian honako hauek ere jasoko dira gehigarri modura: a) Datu horiek zertarako utziko diren. b) Kontratista izango denak beti bete beharko ditu datuak babesteari buruzko estatu-araudia eta Europar Batasunekoa, SPKLko 202. artikuluko 1. ataleko azken paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe. c) Enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, adierazpen bat aurkeztu beharko du; horretan, zerbitzariak non kokatuko diren eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adieraziko du. d) Kontratua indarrean den bitartean, aurreko c) letran aipatzen den adierazpenean emandako informazioan gertatzen den edozein aldaketaren berri eman beharko du. e) Lizitatzaileek beren eskaintzan adierazi beharko dute, zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmorik badute, lana egin behar duten azpikontratisten enpresa-izena edo -profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua Aurreko a) hizkitik e) hizkira bitartekoetan jasotako betebeharrak, ezinbestekotzat jo beharko dira, 211. artikuluko 1. ataleko f) idatz-zatian aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	Kontratista datuak babesteari buruzko estatu-araudiaren eta Europar Batasunaren araudiaren mende geratuko da, eta berau oinarrizko kontratu betebeharra izango da (SPKL, 211.1.f). Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, zigor larritzat hartuko da. Betebehar horiei buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da A artxibo elektronikoan, IV. eranskineko (b) txantiloia betez.
13. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA: (ENPRESA EDOTA PERTSONA LIZITATZAILE GUZTIEK NAHITAEZ BETE BEHARKO DUTE KAUDIMEN-BETEKIZUNAK. HORI EGIAZTATZEKO DOKUMENTUAK ESLEIPEN-PROPOSAMENA EGIN ONDOREN AURKEZTUKO DIRA).	
13.1. Baldintzak betetzea	13.1.- Enpresa lizitatzailearen urteko negozio-bolumenaren bidez egiaztatuko da, amaitutako azken 3 urteetan (2023, 2024 eta 2025) negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urterokoaren halako bat eta erdi izan beharko da, hau da, gutxienez 713.584,30 euro urtean, BEZik gabe. 13.2.- Gutxienez 600.000 euroko erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat edo ustiapen-aseguru bat izatearen egiaztagiria. **BITARTEKOAK. -** Lizitatzailearen urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordailatutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailatutakoen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute beren urteko negozio-bolumena. Nolanahi ere, Administrazio Publikoetako Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeak enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimeneko baldintzak egiaztatuko ditu sektore publikoko

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	kontratazio-organo guztien aurrean, bertan jasotakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean.
14. KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA: (ENPRESA EDOTA PERTSONA LIZITATZAILE GUZTIEK NAHITAEZ BETE BEHARKO DUTE KAUDIMEN-BETEKIZUNAK. HORI EGIAZTATZEKO DOKUMENTUAK ESLEIPEN-PROPOSAMENA EGIN ONDOREN AURKEZTUKO DIRA).	
14.1. Baldintza hauek guztiak bete beharko dira	**Gehienez** ere azken hiru urteetan kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko erakunde publikoei egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, horien zenbatekoa, data eta hartzailea publiko edo pribatua izan den adierazita; gaitasun-maila egokia bermatzeko beharrezkoa denean, botere adjudikatzaileek adierazi ahal izango dute kontuan hartuko direla hiru urte baino lehenago egindako zerbitzuei buruzko frogak. Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek eskatzen diotenean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, prestazioa egin dela egiaztatzeko dituen dokumentuekin batera; hala badagokio, ziurtagiri horiek zuzenean jakinaraziko dizkio agintaritza eskudunak kontratazio-organoari. Lan edo zerbitzu bat kontratuaren objektuaren izaera berekoa edo antzekoa dela zehazteko, administrazio-baldintza partikularren agiriak, CPVra ez ezik, jarduerak edo produktuak sailkatzeko beste sistema batzuetara ere jo ahal izango du, hala nola Nazio Batuen produktuen eta zerbitzuen kode normalizatura (UNSPSC), Produktuen Sailkapen Zentralera (CPC) edo Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalera (CNAE). Azken horrek, nolanahi ere, kontratua adjudikatzeko benetako gaitasuna bermatu beharko du. Baldintza agirian aurreikusi ezean, CPV kodeen lehen hiru digituak hartuko dira kontuan. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak gomendioak egin ahal izango ditu, dagozkien sailkapenetako zein kode egokitzen zaien zehatzago adierazteko kontratazio publikoan ohikoenak diren prestazioei.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

	GUTXIENEKO BALIOA: Azken hiru urteetan erakunde publikoei egindako zerbitzu nagusien zerrenda, kontratuaren objektua osatzen dutenen izaera berekoak edo antzekoak badira eta exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urterokoaren ehuneko 70ekoa edo handiagoa bada. **AGIRI BIDEZKO EGIAZTAPENA:** Azken hiru urteetan erakunde publikoei egindako zerbitzu nagusien zerrenda, kontratuaren helburu direnen izaera berekoak edo antzekoak, baldin eta exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urterokoaren ehuneko 70ekoa edo handiagoa bada. Zerbitzua jaso zuen erakundeak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez baliozkotuko da egiaztapen hori. **2.- Giza baliabideak.** - Kirol-arloko aholkularitza teknikoaz eta kirol-ikastaro eta jardueren koordinazio eta kudeaketaz arduratuko den arduradun-koordinatzaileak Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasunaren pareko euskara maila egiaztatu beharko du. - Sorosleek, kirol monitoreek, harreragileek eta erabiltzaileekin harreman zuzena izango duten gainontzeko langile guztiek, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasunaren pareko idatzizko euskara-maila egiaztatu beharko dute eta C1 gaitasunaren pareko ahozko maila. - Kontratua gauzatzera zuzenean atxikitako langileen titulazio akademiko eta profesionalek, gutxienez, baldintza teknikoen agirian zerbitzua emateko nahitaezkotzat finkatutakoak izan beharko dute, bertan zehaztutako dedikazioarekin.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

15. ESKAINTZAK AURKEZTEA:	
Aurkezteko azken eguna:	30 egun natural, lizitazioa kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, azken eguneko 24:00era arte.
15.1. Aurkezteko lekua:	Proposamenak Euskadiko Kontratazio Plataforman aurkeztuko dira dagokion lizitazio-iragarkian zehaztutako epean eta ordua baino lehen. Eskaintzak sinadura elektroniko aitortuaren bidez sinatuta egon beharko du, plataformak onartutako konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile batek baliozkotasunez emana, eta dokumentuaren, eskaintzaren eta harekin lotutako dokumentu guztien nortasuna eta osotasuna bermatuko dituena, Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen alderdi jakin batzuk eta kontratazio publiko elektronikoko gainerako xedapenak arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.
15.2. Aurkezteko modua:	**ELEKTRONIKOA**
15.3. Lizitatzaileak zenbat denbora eutsi behar dion bere eskaintzari:	3 hilabete
15.4. Aldaerak onartzea:	BAI ☐ EZ ☒

16. LIZITATZAILE GUZTIEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	
A artxibo elektronikoa (Aurretiko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa)	1.- Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB). 2.- Aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio. (III. ERANSKINA). 3.- Kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena. Gainera, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, gaitutako helbide elektroniko bat adieraziko da, non kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak egingo diren. Gutxienez 600.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru bat eratzeko konpromisoa ere adierazi beharko da. Zinpeko aitorpen bat baino ez da aurkeztu behar, VII. ERANSKINEAN eskatutakoa lizitatzaileak baduela egiaztatzen duena. 4.- Hala badagokio, atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko berariazko dokumentuak. 5.- Hala badagokio, konfidentzialtasun-adierazpena. 6.- Zerbitzura atxikiko diren langileek baldintza agiri teknikoetan eskatutako hizkuntza gaitasuna izango

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	dutela adierazten duen “Hizkuntza arloko konpromiso arduratsua”, VIII. eranskinean jasotako ereduaren arabera.
B artxibo elektronikoa **(Balio-irizpideen bidez ebalua daitezkeen irizpideen araberako dokumentazioa)**	Kontratuaren helburu diren zerbitzuak emateko lizitatzaileen proposamena deskribatzen duen memoria teknikoa, karatulako 21.1. atalean eskatutako epigrafeen arabera egituratua. Proposamen teknikoa osatzen duen dokumentazioa honako ezaugarri hauekin aurkeztuko da: Atal honek ez ditu 45 orrialde baino gehiago izango, DIN A4 tamainakoak, eranskinak barne, gutxienez 11 pt-ko letra-tamainarekin, arial motakoa, lerroen arteko tartea 1,5 cm-koa eta gutxienez 2 cm-ko marjinak
C artxibo elektronikoa **(Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideen arabera baloratutako dokumentazioa)**	Eskaintza automatikoa: - Eskaintza automatikoa aurkeztu beharko da agiri honen I. ERANSKINEKO ereduaren arabera (a, b edo c).

17. ESLEIPENDUNAK BAKARRIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	
17.1. Gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa	ROLECEko inskripzio-ziurtagiria. edo Eskritura edo eraketa-dokumentua Kontratuaren helburu den jarduera jasotzen duen enpresa lizitatzailearen estatutuak. - IFK: - NAN - Sinatzailearen ahalordeak eta kargua. - II, IV, V eta VI eranskinak. EKAB agirian adierazitakoa betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa. - Organo eskudunak emandako administrazio-ziurtagiria, lizitatzaileak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena. - Lizitatzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen administrazio-ziurtagiria, eskumena duen organoak emana.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: alta, uneko ekitaldiari dagokiona, edo azken ordainagiria.
17.2. Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko dokumentazioa	ROLECEko inskripzio-ziurtagiria. edo Ezaugarri partikularren taula honetako 13.1 puntuarekin lotutako dokumentazioa.
17.3. Gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatzeko dokumentazioa	Ezaugarri partikularren taula honetako 14.1 puntuarekin lotutako dokumentazioa.

18. INFORMAZIOA NOLA LORTU		
18.1. Informazioa eskuratzeko azken eguna.	Interesatuek eskaintzak aurkezteko mugaegunaren aurreko bosgarren (egun naturala) eguneko 13:30ak arte izango dute galderak egiteko eta baldintza agiriei buruzko argibideak eskatzeko epea. Galderak egiteko modua: ondorengo helbide elektronikora bidalitako idatzia: hazi@eskoriatza.eus Lizitatzaile guztientzat interesgarriak izan daitezkeen kontsulten erantzunak Euskadiko Kontratazio Plataforman argitaratuko dira.	
18.2. Lekua eta bitartekoak	Erakundea	ESKORIATZAKO UDALA
	E-posta	hazi@eskoriatza.eus

19. DOKUMENTAZIOA NON LORTU	
19.1. Lekua eta bitartekoak:	Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman http://www.contratacion.euskadi.eus/
	BITARTEKO ELEKTRONIKOAK

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

20. PROPOSAMEN AUTOMATIKOEN IREKIERA		
20.1. Eguna eta ordua:	Ekitaldi publikoak noiz izango diren Euskadiko kontratazio-plataforman argitaratuko dira	
20.2. Irekitzeko lekua:	Erakundea:	ESKORIATZAKO UDALA
	Helbide:	Fernando Eskoriatza plaza 1; 20540, ESKORIATZA.

21. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Enpresa lizitatzaileen eskaintzak gehienez ere 100 punturekin baloratuko dira, jarraian adierazten diren irizpideak aplikatuz:

Irizpidea		Puntuak
I	Balio-irizpideen bidez kuantifika daitekeen eskaintza	45
I.1	Pertsonak kudeatzeko eta optimizatzeko plana	10
I.2.	Zerbitzuaren jarraipena egiteko programa eta kalitate-kontrolak ezartzea	10
I.3.	Erabiltzaileak erakartzeko eta fidelizatzeko proposamenak eta estrategiak	10
I.4.	Jarduera fisikoa sustatzeko plana, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta sedentarismoa prebenitzeko	10
I.5.	Urteko prestakuntza- eta birziklatze-plana kontratuaren iraunaldian eta haren luzapenetan	5
II	Formulen bidez kuantifika daitekeen eskaintza	55
II.1	Kiroldegia kudeatzeko eta mantentzeko eskaintza ekonomikoa	30
II.2	Urteko ordu-poltsa	10
II.3.	Berdintasun-ziurtagiria	5
II.4	Kontratuan ezarritakoaz haragoko koordinazio-ordu presentzialen eskaintza,	10

21.1. BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ KUANTIFIKA DAITEKEEN PROPOSAMEN TEKNIKOA	**I. BALIO-JUDIZIOEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ARABERA KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK. (45 puntu).** **I.1. Pertsonak kudeatzeko eta optimizatzeko plana: pertsonak kudeatzeko proiektua – langileen lan-prozedura, antolaketa, koordinazioa, kontrola eta ebaluazioa –, kontratuaren ezaugarrietara egokitua (10 puntu).** I.1.1.- Proiektua ezartzeko eta gauzatzeko prozedura, arduraduna, barne- eta kanpo-koordinazioko antolaketa-prozesuak, ekintza zuzentzaileak edo aintzatespen-ekintzak (4 puntu).

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

	I.1.2.- Kudeaketa-plana eta jarduketa-protokoloak zerbitzuari atxikitako langileen ordezkapenetarako eta kontratazio berrietarako, saio guzti-guztiak egiten direla bermatzeko. Hainbat alderdi baloratuko dira, hala nola zerbitzuaren garapenean plantea daitezkeen ordezkapen moten identifikazioa, baliabide materialak eta horretarako bideratutako pertsonak (4 puntu). I.1.3.- Taldearen motibazioa indartzeko neurriak eta lan giro eta elkarren arteko harreman onak lortzeko mekanismoak (2 puntu). **Atal honek ez ditu 10 orrialde baino gehiago izango, DIN A4 tamainakoak, eranskinak barne, gutxienez 11 pt-ko letra-tamainarekin, arial motakoa, lerroen arteko tartea 1,5 cm-koa eta gutxienez 2 cm-ko marjinak.** **I.2. Zerbitzuaren jarraipena egiteko programa eta kalitate-kontrolak ezartzea. Enpresak zerbitzu bakoitzean garatu beharreko ekintza zehatzak, dagozkien adierazleekin (10 puntu).** Informazio garrantzitsua biltzeko eta izapidetzeko metodoak, kontratua gauzatzen den bitartean zerbitzu bakoitzaren kudeaketaren ebaluazioa, jarraipena eta kontrola egiteko metodoak, eguneroko kudeaketarako ESKORIATZAKO Udalaren esku jarritako bitarteko elektronikoak edo aplikazio informatikoak barne. Ebaluazio-helburuak definitzea, adierazle kuantitatiboak eta kualitatiboak hautatzea, tresnak aukeratzea eta prestatzea, neurketa-sistemak eta datuak biltzea baloratuko dira. **Atal honek ez ditu 10 orrialde baino gehiago izango, DIN A4 tamainakoak, eranskinak barne, gutxienez 11 pt-ko letra-tamainarekin, arial motakoa, lerroen arteko tartea 1,5 cm-koa eta gutxienez 2 cm-ko marjinak.** **I.3. Erabiltzaileak erakartzeko eta fidelizatzeko proposamenak eta estrategiak. Enpresak zerbitzu bakoitzean garatu beharreko ekintza zehatzak, dagozkien adierazleekin (10 puntu).** I.3.1.- Jarduerak sustatzeko eta herritarrei zabaltzeko programa. Jardueren zabalkundea hobetzeko erakunde lizitatzaileak, Udalari kosturik eragin gabe, proposatzen dituen baliabideak baloratuko dira, originaltasuna, aldizkakotasuna, erabilitako formatua, estetika eta bilatzen den inpaktua kontuan hartuta (5 puntu). I.3.2.- Erabiltzaileen arretaren pertsonalizazioa eta abonatuen eta ikastarogileen fidelizazioa. Proposatutako arreta-/informazio-/fidelizazio-neurri zehatzak baloratuko dira, eta ezarpen- eta hedapen-kronograma bat zehaztu beharko da (5 puntu). **Atal honek ez ditu 10 orrialde baino gehiago izango, DIN A4 tamainakoak, eranskinak barne, gutxienez 11 pt-ko letra-tamainarekin, arial motakoa, lerroen arteko tartea 1,5 cm-koa eta gutxienez 2 cm-ko marjinak.** **I.4. Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta sedentarismoa prebenitzeko jarduera fisikoa sustatzeko plana (10 puntu).** Herritarrentzako jarduera fisikoko eta kiroleko zerbitzuen plan bat proposatzea, herritarren bizimodu aktibo eta osasungarriak sustatuko

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

dituena. Osasunaren jarraipen-plan integral bat pertsonalizatzea baloratuko da (10 puntu).
Atal honek ez ditu 10 orrialde baino gehiago izango, DIN A4 tamainakoak, eranskinak barne, gutxienez 11 pt-ko letra-tamainarekin, arial motakoa, lerroen arteko tartea 1,5 cm-koa eta gutxienez 2 cm-ko marjinak.

I.5. Urteko prestakuntza- eta birziklatze-plana, kontratuak eta haren luzapenek irauten duten bitartean (5 puntu).
Prestakuntza- eta birziklatze-plana eta training-ak, eta prestakuntza- eta motibazio-ekintza zehatzak kontratua egikaritzen parte hartzen duten langileentzat. Baloratuko da langile teknikoen kualifikazioa, eguneraketa, balio-aniztasuna eta moldagarritasuna lortzera bideratutako prestakuntza-ekintzak ea egokiak diren pertsonen gaitasunak zerbitzuak emateko eskakizunetara egokitzeko (5 puntu).
Atal honek ez ditu 5 orrialde baino gehiago izango, DIN A4 tamainakoak, eranskinak barne, gutxienez 11 pt-ko letra-tamainarekin, arial motakoa, lerroen arteko tartea 1,5 cm-koa eta gutxienez 2 cm-ko marjinak.

Ez da onartuko atal bakoitzean adierazitako orrialdeak (azala, aurkibideak, eranskinak eta dokumentazio osagarria barne) gainditzen duen proiekturik.

Inola ere ez da eskaintzaren balio ekonomikoari edo automatikoki ebalua daitekeen beste edozein irizpideri buruzko erreferentziarik edo oharrik agertuko dokumentazio orokorrean edo aldez aurreko balorazioa behar duen dokumentazioan.

Balorazio-parametroak:
Balio-judizioaren bidez baloratzeko memoria teknikoaren xehetasunak, parametro hauek hartuko dira kontuan, eta ondoren adierazten den taularen arabera esleituko da puntuazioa.

	A (%0)	B (%25)	C (%50)	D (%75)	E (%100)
I.1. Pertsonak kudeatzeko eta optimizatzeko plana					10
I.1.1.- Proiektua ezartzeko eta gauzatzeko prozedura, arduraduna, barne- eta kanpo-koordinazioko antolaketa-prozesuak, ekintza zuzentzaileak edo aintzatespen-ekintzak	0	1	2	3	4
I.1.2. Kudeaketa-plana eta	0	1	2	3	4

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	jarduketa-protokoloak zerbitzuari atxikitako langileen ordezkapenetarako eta kontratazio berrietarako, saio guzti-guztiak egiten direla bermatzeko Hainbat alderdi baloratuko dira, hala nola zerbitzuaren garapenean plantea daitezkeen ordezkapen moten identifikazioa, baliabide materialak eta horretarako bideratutako pertsonak					
	I.1.3.- Taldearen motibazioa indartzeko neurriak eta lan giro eta elkarren arteko harreman onak lortzeko mekanismoak	0	0,5	1	1,5	2
	I.2. Zerbitzuaren jarraipena egiteko programa eta kalitate-kontrolak ezartzea	0	2,5	5	7,5	10
	I.3. Erabiltzaileak erakartzeko eta fidelizatzeko proposamenak eta estrategiak					10
	I.3.1. Jarduerak sustatzeko eta herritarrei zabaltzeko programa. Jardueren zabalkundea hobetzeko erakunde lizitatzaileak, Udalari kosturik eragin gabe, proposatzen dituen baliabideak baloratuko dira, originaltasuna, aldizkakotasuna, erabilitako formatua, estetika eta bilatzen den inpaktua kontuan hartuta	0	1,25	2,5	3,75	5

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

I.3.2.- Erabiltzaileen arretaren pertsonalizazioa eta abonatuen eta ikastarogileen fidelizazioa. Proposatutako arreta-/informazio-/fidelizazio-neurri zehatzak baloratuko dira, eta ezarpen- eta hedapen-kronograma bat zehaztu beharko da	0	1,25	2,5	3,75	5
I.4. Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta sedentarismoa prebenitzeko jarduera fisikoa sustatzeko plana	0	2,5	5	7,5	10
I.5. Urteko prestakuntza- eta birziklatze-plana, kontratuak eta haren luzapenek irauten duten bitartean	0	1,25	2,5	3,75	5

Berariaz ezartzen da 22,5 puntuko gutxieneko muga, balio-judizioaren bidez kuantifika daitezkeen irizpideetan lortu behar dena eskaintzak hautaketa-prozesuan jarrai dezan. Bestela, adierazitako 22,5 puntutik beherako balorazioa lortzen duen eskaintza prozeduratik kanpo geratuko da, lortu nahi den gutxieneko kalitate-parametroak ez bermatzeagatik.

A. **Xehetasun- eta kalitate-maila eskasa**: aurkezpen-maila eskematikoa, kontratuaren helburuaren alderdi garrantzitsuenak zehazten ez dituena.
B. **Xehetasun- eta kalitatea maila azalekoa:** aurkezpen-maila eskematikoa, kontratuaren helburuaren alderdi garrantzitsuenak azaletik zehazten dituena.
C. **Xehetasun- eta kalitate-maila zuzena:** aurkezpen-maila xehatua, zeinaren irakurketa eta analisitik ondorioztatzen baita, kontratuaren helburuari dagokionez, haren aplikazioak kalitate-maila egokia bermatzen duela kontratua egikaritzean.
D. **Xehetasun- eta kalitate-maila nabarmena:** aurkezpen-maila xehatua, hura irakurrita eta aztertuta ondorioztatzeko moduan,

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	kontratuaren helburuari dagokionez, hura aplikatzeak kalitate-maila nabarmena bermatzen duela kontratua egikaritzean. **E. Xehetasun- eta kalitate-maila bikaina:** Aurkezpen-maila xehatua, hura irakurrita eta aztertuta ondorioztatzeko moduan, kontratuaren helburuari dagokionez, hura aplikatzeak kalitate-maila bikaina eta balio diferentzialarekin bermatzen duela kontratua egikaritzean.
21.2. FORMULEN BIDEZ AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEKEEN PROPOSAMEN TEKNIKOA	**II.2 Esleipendunaren kargura izango diren urteko orduen poltsaren proposamena: (10 puntu).** Urteko 0 ordu gehitzea: 0 puntu Urtean 10 ordu gehitzea: 2 puntu Urtean 20 ordu gehitzea: 4 puntu Urtean 30 ordu gehitzea: 6 puntu Urtean 40 ordu gehitzea: 8 puntu Urtean 50 ordu gehitzea: 10 puntu **II.3 Berdintasun-irizpideak: (5 puntu).** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 22.5 artikuluaren a) apartatuan ezarritakoa betez, 5 puntu emango zaizkie emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko aitorpen, ziurtagiri edo etiketa bat dutenei, eta, kontratua indarrean dagoen bitartean, beren langileei ziurtagiri horietatik eratorritako berdintasun-neurriak aplikatzen dizkietenei. Ondorio horietarako, baliozkotzat joko dira administrazio publikoek berdintasunaren eremuan emandako enpresa-sariak, hala nola: ◦ Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen “Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundea” aitorpena. ◦ Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetarako eta Berdintasunerako “Berdintasuna enpresan” aitorpena. ◦ Antzeko edo pareko beste edozein ziurtagiri. **II.4 Koordinazio-ordu presentzialen eta urteko orduen eskaintza, kontratuan ezarritakoaz harago: (10 puntu).** -0-25 ordu: 0 puntu -26-50 ordu: 2,5 puntu -51-75 ordu: 5 puntu -76-100 ordu: 7,5 puntu -101 ordu baino gehiago: 10 puntu
21.3. ESKAINTZA EKONOMIKOA	**II.1. Kiroldegia kudeatzeko eta mantentzeko eskaintza ekonomikoaren haztapena: (30 puntu)** Eskaintza ekonomikoa, gehienez ere 30 puntura arte.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

	Eskaintza ekonomikoaren balorazioa aurkeztutako eskaintzari aplikatuko zaio, BEZik gabe, lizitatzaileek eskaini beharreko urteko zenbatekoaren arabera. Eskaintzarik merkeenari puntuaziorik handiena emango zaio, eta gainerako eskaintzen puntuazioa formula honen bidez lortuko da: eskaintzarik baxuena zati lizitatzailearen eskaintza bider 30. Formula honako hau da: Lp=(Eb/Le)×30 Honako hauek izanik: Lp: lizitatzailearen puntuazioa. Eb: eskaintza baxuena. Le: lizitatzailearen eskaintza.
21.4. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK	SPKLren 147.2 artikuluaren arabera, kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren zenbait eskaintzaren artean berdinketa gertatzen bada, irizpide sozial hauek aplikatuko dira, ordenan, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den uneari dagokionez: a) Plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena lehenetsiz. b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen empresa. c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa. d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.
21.5. ESKAINTZA ANORMALKI BAXUEGIAK	Eskaintza anormalki baxutzat edo neurriz kanpokotzat hartuko da aurkeztutako eskaintza ekonomikoen batez besteko aritmetikoa baino % 20 txikiagoa denean.
21.5.1. EZOHIKO ESKAINTZA BAXUEN KASUAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA	9/2017 SPKLren 149. artikuluko prozedura.
21.6 HAUTAKETA-PROZESUAREKIN JARRAITZEKO LIZITATZAILEARI ESKATZEN ZAION GUTXIENEKO PUNTUAZIOA	Hurrengo fasera pasatzeko (C artxiboa) 22,5 puntu edo gehiago lortu behar dira irizpide subjektiboen edo formula matematikoen bidez baloratu ezin direnen balorazioan.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

22. FAKTURAZIOA	
22.1. Fakturazio mota:	Hilabeteka ☒ Hiru hilabeteka ☐ Zerbitzuko ☐
22.2. Fakturaren berezitasunak:	EZ ☐ BAI ☒ Espediente zk.

23. ERREKURTSO BEREZIA	
23.1. Errekurtsopeko espedientea	BAI ☒ EZ ☐

24. ARBITRAJEA:	
24.1. Arbitrajea	BAI ☐ EZ ☒

25. JURISDIKZIOA	
25.1 Foroa	ESKORIATZAKO Udala eta esleipenduna Espainiako maila guztietako auzitegien mende jarriko dira, eta berariaz uko egingo diote legokiekeen edozein foruri.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. Baldintza. Araubide juridikoa.

Kontratu hau zerbitzu-kontratutzat hartzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 13. artikuluan xedatutakoaren arabera. Administrazio-izaera du eta administrazio publikoen kontrataziorako printzipio komunen arabera arautuko da, eta, nolanahi ere, kontratazio publikoari buruzko Europako Erkidegoetako Zuzenbidearen arabera. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek arautuko dute kontratua:

1.- Baldintza administratibo partikularren agiri honek.

2.- Baldintza-agirietan aurreikusita ez dagoenerako, honako hauek arautuko dute kontratua: SPKLk (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena); 817/2009 Errege Dekretuak, maiatzaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duenak (817/2009 ED); eta Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak (APKLEO)

3.- Administrazio Zuzenbideko gainerako arauek.

Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa aplikatu ahal izango dira kontratuaren interpretazioak, ondorioek, betearazpenak eta azkentzeak sor ditzaketen arazoak erabakitzeko, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako xedapenek ezin badituzte erabaki; nolanahi ere, zuzenbide pribatuko arauak ezin izango dira aplikatu Administrazioaren prerrogatibak ahaztuta.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

Gai tekniko hutsetan izan ezik, baldintza agiri honek lehentasuna izango du bere xedapen guztietan espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik.

Kontratu hau sinatzeak ez du inola ere ekarriko inolako lan-harremanik egotea ESKORIATZAKO Udalaren eta kontratua gauzatzeko enpresaburuak dituen langileen artean.

Horri dagokionez, kontratua azkentzean, kontratuaren xede diren lanak egin dituzten pertsonak ezin izango dira inola ere ESKORIATZAKO Udaleko langile gisa finkatu.

Kontratu hau erregulazio harmonizatuaren mende egongo da edo ez, **Ezaugarri Partikularren Taulako 3.1 apartatuan aurreikusitakoaren arabera.**

2. baldintza. Kontratazio Organoa eta Kontratazioa Mahaia.

Kontratazio Organoa ESKORIATZAKO Udala da, eta ezaugarri partikularren taulako 0.2 apartatuan identifikatzen da. Kontratazio-mahaia honako hauek osatuko dute: mahaiburuak, erregelamenduz zehazten diren kideek eta idazkari batek (ezaugarri partikularren taulako 1. apartatuan zehaztutakoa).

SPKLren 326. artikuluaren arabera, Kontratazio Organoak Kontratazio Mahai baten laguntza izango du, zeinak, laguntza tekniko espezializatuko organo gisa, eginkizun hauek izango dituen:

a) Aurretiko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak kalifikatzea eta, hala badagokio, betekizun horiek betetzen dituztela egiaztatzen ez duten hautagaiak edo lizitatzaileak baztertzea erabakitzea.

b) Lizitatzaileen proposamenak baloratzea.

c) Hala badagokio, eskaintza bat nabarmenki baxutzat jotzeko proposamena egitea, lege honen 149. artikuluan aipatzen den prozedura izapidetu ondoren.

d) Kontratazio-organoari proposatzea kontratua adjudikatzeko eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari, 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazioa arautzen duen administrazio-baldintza partikularren agirian ezarritakoaren arabera.

3. baldintza. Kontratuaren arduraduna.

Kontratazio Organoak izendatzen duen kontratuaren arduradunari dagokio, SPKLren 62.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua nola egikaritzen den gainbegiratzea eta hitzartutako prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko behar diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, kontratazio-organoak esleitzen dizkion ahalmenen esparruan.

Gainera, kontratuaren arduradunaren eginkizunak dira, besteak beste:

a) Baldintza teknikoen agiria eta kontratuan edo xedapen ofizialetan ezarritako gainerako baldintza teknikoak interpretatzea.

b) Obrak, zerbitzuak eta hornidurak fase bakoitzean emateko beharrezkoak diren bitartekoak eta antolamendua egon daitezen eskatzea.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

c) Kontratuaren helburuak lortzeko agindu egokiak ematea.

d) Zerbitzuak behar bezala garatzeko egin nahi diren aldaketak proposatzea.

e) Hala badagokio, egindako obra, zerbitzu eta hornidurei dagozkien ziurtagiri partzialak egitea, adostutako egikaritze- eta ordainketa-epeen arabera.

f) Obrak, zerbitzuak eta hornidura-kontratuak garatu bitartean sortzen diren gorabehera guztiak izapidetzea.

g) Obrak, zerbitzuak eta hornidura-kontratuak behar bezala garatzeko eta gainbegiratzeko beharrezkotzat jotzen dituen bilera guztiak deitzea. Enpresa esleipendunaren ordezkariak nahitaez joan beharko du bilerara, obra, zerbitzu eta hornidura egikaritzen esku hartzen duten bertako aditu, teknikari, letradu edo espezialisten laguntzarekin.

Lizitazio honetarako, kontratuaren arduraduna **ezaugarri partikularren taulako 0.3 atalean** zehaztutakoa izango da.

4. baldintza.- Kontratuaren helburua eta beharra.

Baldintza partikularren agiri honetan aipatzen den kontratuaren helburua **ezaugarri zehatzen taulako 2.1. atalean ezarritakoa da**.

Lizitazioa sortaka zatituta badago, haietako bakoitza adieraziko da **ezaugarri partikularren taulako 2.5 atalean**.

Sortatan banatuta egonez gero, halaber, lizitatzaile berak lizitatu dezakeen sorta-kopurua muga daiteke, 9/2017 SPKLren 99.4 artikuluan ezarritakoaren arabera. Behar bezala justifikatu beharko da, eta lizitazio-iragarkian eta administrazio-baldintza partikularren agirian adierazi:

a) Hautagai edo lizitatzaile berak eskaintza aurkez dezakeen sorta kopurua mugatu ahal izango da.
b) Lizitatzaile bakoitzari eslei dakiokeen sorta kopurua ere mugatu ahal izango da.

Ezaugarri berezien taulako 2.7 atalean aurreikusitako mugen ondorioetarako, enpresaburuen elkarteetan horiek izango dira lizitatzailetzat jotakoak, eta ez bertako kideak.

Sortetako bat edo batzuk enplegu-zentro berezietarako edo laneratzeko enpresetarako gorde ahal izango dira, edo, bestela, kontratu horiek gauzatzeko erreserbako gutxieneko ehuneko bat gorde ahal izango da enplegu babestuko programen esparruan, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz.

Kontratu hau egikaritzeko, dokumentu honetan jasotako aurreikuspenez gain, eranskin gisa eransten zaion baldintza teknikoen agirian adierazitako baldintzak bete beharko dira. Agiri horretan zehatz-mehatz zehazten da espediente honen helburua.

Era berean, kontratuaren helburuaren edukian sartutzat joko dira hura egikaritzetik eratorritako gastu guztiak.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

5. baldintza.- Kontratuaren prezioa eta balioa.

Prezioa SPKLren 102. artikuluan xedatutakora egokituko da; horrela, sektore publikoko kontratuek prezio zehatza izango dute beti, eta benetan gauzatutako prestazioaren arabera eta itundutakoaren arabera ordainduko zaio kontratistari, eurotan adierazita. Nolanahi ere, 9/2017 Legeak edo beste lege batzuek hala aurreikusten duten kasuetan, beste kontraprestazio batzuk emanez ere ordaindu ahal izango da.

Kontratazio-organoek prezioa kontratua benetan betetzeko egokia izan dadin zainduko dute, eta, horretarako, zenbatekoa behar bezala zenbatetsiko dute, lizitazio-aurrekontua ezartzeko unean merkatuko prezio orokorra kontuan hartuta, eta, hala badagokio, balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzei buruzko arauak aplikatuta. Ondorio horietarako, SPKLren 101. artikuluan aurreikusitako balio zenbatetsia kalkulatzeko arauak bete beharko dira.

Kontratuaren prezioa formulatu ahal izango da, bai prestazioaren osagaiei edo ematen edo gauzatzen diren prestazio-unitateei dagozkien unitate-prezioen arabera, bai kontratuaren prestazio guztiei edo batzuei aplika dakizkiekeen oroharreko prezioen arabera. Nolanahi ere, partida independente gisa adieraziko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa.

6. baldintza. Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontutzat hartuko da Kontratazio Organoak kontratuaren indarrez konprometitu dezakeen gehieneko gastu-muga, BEZa barne, SPKLren 100.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Kontratu hau gauzatzeko gehieneko aurrekontua **ezaugarri partikularren taulako 5.1 atalean** ezarritakoa da, dagozkion zergak barne.

Oroharreko preziorik ezartzen bada, inguruabar hori adieraziko da **ezaugarri partikularren taulako 7.1 atalean**, eta zenbatekoa taula bereko **7.1.1 atalean** ezarriko da.

Gehieneko prezio unitarioak, aplikatu behar badira —**ezaugarri partikularren taulako 7.1.2 atalean** ezarriko dena—, atal berean adierazitakoak izango dira. Kasu horretan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gutxi gorabeherakoa izango da.

Hobekuntza beherantz egingo da, kopuru zehatzak kontsignatuz. Lizitatzaileak ezingo du prestazio bakoitzerako finkatutako zenbatekoa gainditu bere eskaintza ekonomikoan, eskaintza ez onartzea eta, ondorioz, lizitaziotik kanpo uztea ekarriko bailuke.

7. baldintza. Kontratuari kalkulatutako balioa.

Kontratuari kalkulatutako balioa **ezaugarri partikularren taulako 5.3 atalean** adierazitakoa da.

Horren barne daude kontratatutako prestazioak betetzeko enpresa esleipendunak egin behar dituen gastu guztiak, eta, bereziki, tasak eta zergak, bai eta kontratua indarrean dagoen bitartean ezar daitezkeenak ere, balio erantsiaren gaineko zerga izan ezik, hori partida independente gisa jasanaraziko baita.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

Prezioa egikaritze-unitateen bidez zehazten bada, unitate kopurua kontratuaren prezioaren % 10era arte handitu ahal izango da, dagokion aldaketa-espedientea izapidetu beharrik gabe.

8. baldintza. Kreditua egotea.

Kontratazio honen ondoriozko betebehar ekonomikoei erantzuteko kreditua badagoela ziurtatzeko beharrezkoak diren izapideak egin dira.

SPKLren 116. artikuluaren arabera, Kontratazio Organoak egiaztatu beharko du badagoela kreditu egokia eta nahikoa kontratua betetzearen ondorioz botere adjudikatzaileak izan ditzakeen betebehar ekonomikoei erantzuteko.

Kontratu honetarako, **ezaugarri partikularren taulako 6. atalean** jasota daude kreditua badagoela egiaztatzeko agiriak eta kontratu hau egiteko erabiliko den aurrekontu-partida.

9. baldintza. Egikaritze epea.

Kontratuaren iraupena bat dator Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin; izan ere, prestazioen izaera, finantzaketaren ezaugarriak eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez emateko beharra kontuan hartuta ezarri da, kontratu jakin batzuei aplikatu beharreko arau bereziei kalterik egin gabe.

Kontratuak luzapen bat edo gehiago aurreikusi ahal izango ditu, baldin eta haien ezaugarriak ez badira aldatzen luzapenek irauten duten bitartean, 9/2017 Legearen 203. artikulutik 207. artikulura ezarritakoaren arabera sar daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe. Kasu horretan, luzapena Kontratazio Organoak erabakiko du, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat.

Kontratu hau gauzatzeko epea **ezaugarri partikularren taulako 4. atalean** ezartzen da, eta kontratua formalizatzen denetik edo kontratu-dokumentuan ezarritako egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Kontratuaren iraupena luzatu ahal izango da, **ezaugarri partikularren taulako 4.2 atalean** hala aurreikusten bada eta atal horretan ezarritako baldintzen arabera.

Hala ere, prestazioaren jarraitutasuna bermatzeko, kontratu bat amaitzean berria formalizatu ez bada, jatorrizko kontratua luzatu ahal izango da kontratu berria gauzatzen hasi arte, eta, nolanahi ere, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, baldin eta kontratu berriaren lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratuaren amaiera-data baino gutxienez hiru hilabete lehenago argitaratu bada.

10. baldintza. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak.

SPKLren 202. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontratazio Organoak baldintza bereziak ezarri ahal izango ditu kontratua egikaritzeko, baldin eta kontratuaren helburuari lotuta badaude, zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez badira, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarriak badira eta lizitazio-iragarkian eta baldintza-agirietan adierazten badira.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

Egikaritze-baldintza berezi horiek **ezaugarri partikularren taulako 12. atalean** ezarriko dira. Egikaritze-baldintza horiek, bereziki, kontsiderazio ekonomikoei buruzkoak, berrikuntzarekin lotutakoak, ingurumenekoak edo sozialak izan daitezke.

Egikaritze-baldintza berezi horiek ez betetzeak zigorrak ekarriko ditu, SPKLren 192. artikuluaren 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera. Kontratuaren parte diren egikaritze-baldintza berezi guztiak eskatuko zaizkie, era berean, kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

11. baldintza.- Prezioak berrikustea.

Ezaugarri berezien taulako 7.2 atalaren arabera, ez da bidezkoa kontratu honetako prezioak berrikustea.

II. KAPITULUA LIZITAZIOA

12. baldintza. Kontratatzeko gaitasuna.

SPKLren 65. artikuluaren eta hurrengoen arabera, Espainiako edo atzerriko pertsona fisiko edo juridikoek kontratatu ahal izango dute ESKORIATZAKO Udalarekin, honako hauek betetzen badituzte:

- Jarduteko gaitasun osoa edukitzea.
- Kontratatzeko debekurik ez izatea (9/2017 SPKL, 71. art.).
- Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzea, edo, lege honek hala eskatzen duen kasuetan, behar bezala sailkatuta egotea.
- Kontratuaren helburu diren prestazioak emateko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izatea.

<u>Pertsona juridikoak:</u>

- Beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-esparruaren barruan dauden prozeduretan parte hartu ahal izango dute.

<u>Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak:</u>

- Ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, kasuan kasuko prestazioa egiteko gaituta egotea.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

- Enpresa horiek kokatuta dauden estatuko legeriak baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badu bertan zerbitzua eman ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Europar Batasunetik kanpoko enpresak:

- Txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela Espainiako enpresek 3. artikuluan aipatutakoen pareko sektore publikoko erakundeekin egiten dituzten kontratazioetan parte hartzea, funtsean, modu berean.

- Administrazio-baldintza partikularren agiriak eskatu ahal izango die obra kontratuen esleipendun izan diren Europar Batasunetik kanpoko enpresei sukurtsal bat irekitzeko Espainian, eragiketetarako ahaldunak edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea.

Enpresaburuen elkarteak.

- Aldi baterako eratuta izatea, eskritura publikoan formalizatu beharrik gabe, harik eta kontratua bere alde esleitu arte.

- Elkartuta aurkezten diren enpresen artean kolusio-zantzurik hautematen bada, elkartuta lehiatzeko arrazoiak justifikatu beharko dira, SPKLren 69. artikuluaren arabera.

- Elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izenda dezatela, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituena, harik eta kontratua azkendu arte; horrek ez du esan nahi, ordea, zenbateko handiak kobratu eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eman ezin dituztenik. Elkartea osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak adieraztea, bakoitzaren parte-hartzea eta, kontratuaren esleipendun izanez gero, aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela adierazita.

- Enpresaburuen aldi baterako elkarteen iraupena, gutxienez, kontratua azkendu artekoa izango da.

- Sailkapena eska daitekeen kasuetan: sailkapena egiaztatu beharko dute, eta baita kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala ere (kide ez diren estatuen kasuan).

- Prozedura bat izapidetzen ari den bitartean eta kontratua formalizatu aurretik, aldi baterako enpresa-elkartearen osaera aldatzen bada, hura prozeduratik kanpo geratuko da. Ez da osaeraren aldaketatzat hartuko enpresen partaidetzaren aldaketa, baldin eta sailkapen berari eusten bazaio. Aldi baterako enpresa-elkartea kontratua esleitzeko prozeduratik kanpo geratuko da, halaber, elkartea osatzen duten enpresetako batek edo batzuek kontratatzeko debekua badute.

Kontratua aldi baterako enpresa-elkarte batekin formalizatu ondoren, honako arau hauek beteko dira:

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

a) Aldi baterako elkartearen osaera aldatzeak enpresa-kopurua handitzea, enpresa-kopurua gutxitzea edo enpresa bat edo batzuk beste batzuekin ordeztea badakar, kontratazio-organoaren aldez aurreko eta berariazko baimena beharko da, eta kontratuaren zenbatekoaren ehuneko 20 gutxienez gauzatu beharko da, edo, obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratua bada, kontratuaren iraupen-epearen bosten batean gutxienez ustiatu beharko da. Nolanahi ere, beharrezkoa izango da eskatutako kaudimenari edo sailkapenari eustea, eta elkartea osatzen duten enpresek jarduteko gaitasun osoa izatea eta kontratatzeko debekurik ez izatea.

b) Aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresetako bati edo batzuei dagokienez jarduera-adarraren bat-egite, zatiketa edo eskualdatze eragiketak egiten direnean, kontratua gauzatzen jarraituko da aldi baterako enpresa-elkarte esleipendunarekin. Sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo jarduera-adarraren eskuratzailea ez badira aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresak, beharrezkoa izango da jarduteko gaitasun osoa izatea, kontratatzeko debekurik ez izatea eta eskatutako kaudimenari, gaitasunari edo sailkapenari eustea.

c) Aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresetako bat edo batzuk hartzekodunen konkurtsoan deklaratzen direnean eta likidazio-fasea ireki bada ere, gainerako enpresekin kontratua gauzatzen jarraituko da, baldin eta enpresa horiek eskatzen diren kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen badituzte.

Kontratazio-organoak neurri egokiak hartuko ditu honako hau bermatzeko: kontratazio-prozedura prestatu bitartean, zehaztapen teknikoak edo kontratua prestatzeko dokumentuak egiten aldez aurretik parte hartu duten edo kontratazio-organoari aholkuak eman dizkioten enpresek lizitazioan parte hartzeak ez duela lehia faltsutzen. Neurri horien artean ezarri ahal izango da aipatutako enpresak eta haiekin lotutako enpresak, hau da, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako kasuren batean daudenak, lizitazio horietatik kanpo utzi ahal izatea, tratu-berdintasunaren printzipioa betetzen dela bermatzeko biderik ez dagoenean (SPKLren 70.1 artikulua).

13. baldintza. Sailkapena eta kaudimena.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egoteak enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimeneko baldintzak egiaztatuko ditu sektore publikoko kontratazio organo guztien aurrean.

Espediente ireki sinplifikatuen kasuan, inskripzio hori nahitaezkoa izango da 2018ko irailaren 9tik aurrera, SPKLren azken xedapenetako hamaseigarrenean ezartzen den bezala; hala ere, Kontratazio Organoak beste neurri batzuk ezarri ahal izango ditu, egokitzat jotzen badu.

Arau orokor gisa, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatu ahal izango dira, besteak beste:

- Kontratazio Organoak SPKLren 87. artikulutik 91. artikulura aurreikusitako dokumentuen artean zehaztutakoak aurkeztuz.
- Hurrengo paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuetarako, Kontratazio Organoak, lehenengo lerrokadan

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

aipatzen diren dokumentuez gain, 87. artikulutik 91. artikulura aurreikusitakoez bestelako kaudimen-frogabideak ere onartu ahal izango ditu, modu justifikatuan.

- Baliozko arrazoi batengatik operadore ekonomikoa ez badago Kontratazio Organoak eskatutako erreferentziak aurkezteko moduan, baimena emango zaio bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko botere adjudikatzaileak egokitzat jotzen duen beste edozein dokumenturen bidez.

- Enpresak sailkatzeko ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko, 9/2017 Legearen 87. artikulutik 91. artikulura aurreikusitako dokumentuen artean erregelamenduz ezarritakoak aurkeztu beharko dira.

Eta, zehazki, espediente honetan eskatzen den kaudimena **ezaugarri partikularren taulako 13. eta 14. ataletan** ezarritakoa da.

9/2017 SPKLren 140. artikuluan ezarritakoaren arabera, kaudimena prozedura irekian egiaztatuko da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formularioaren araberako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.

14. baldintza. Kaudimena kanpoko bitartekoekin osatzea.

Kontratu jakin bat egiteko beharrezko kaudimena egiaztatzeko, enpresaria beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, horiekin dituen loturen izaera juridikoa gorabehera; betiere, egiaztatzen baldin badu kontratua egikaritzeko denboran kaudimen eta baliabide horiek benetan izango dituela, eta horiek utzitako erakundeak ez baldin badu kontratatzeko inolako debekurik. Baldintza beretan, 2017ko SPKLren 69. artikuluak aipatzen dituen aldi baterako batuketetan parte hartzen duten enpresariek aldi baterako batuketatik kanpoko kaudimen eta baliabidetara jo ahal izango dute. Beraz, lizitatzaileek kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko betekizun espezifikoak egiaztatu ahal izango dituzte, **ezaugarri berezien taulako 13. eta 14. ataletan** jasotakoak, beste entitate batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarrituta.

Sailkapenik ez badago edo sailkapena nahikoa ez bada, ezin izango da kaudimena kanpoko bitartekoekin integratu. SPKLren 75.1 artikuluaren arabera, 90.1 e) artikuluan adierazten diren ikasketa- eta lanbide-tituluei edo lanbide-esperientziari buruzko irizpideei dagokienez, enpresek beste erakunde batzuen gaitasunetara jo ahal izango dute soilik baldin eta erakunde horiek gaitasun horiek beharrezkoak dituzten zerbitzuak emango badituzte.

Obra-, zerbitzu- eta hornidura-kontratuetan, SPKLren 75.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, botere adjudikatzaileek eskatu ahal izango dute zati edo lan jakin batzuk, haien izaera berezia kontuan hartuta, lizitatzaileak berak zuzenean egin ditzala, edo, enpresaburu-elkarte batek aurkeztutako eskaintzaren kasuan, bertan parte hartzen duen batek, betiere baldintza-agirian hala aurreikusi bada.

15. baldintza. Kaudimen-baldintzak zehaztea.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

Obra-, zerbitzu- eta hornidura-kontratuetan, pertsona juridikoei eskatu ahal izango zaie prestazioa emateko ardura duten langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa zehazteko, 9/2017 Legearen 76.1 artikuluaren arabera. Era berean, aipatutako legearen 76. artikuluaren 2. apartatuaren arabera, kontratazio-organoek lizitatzaileei eskatu ahal izango diete, beren kaudimena edo, hala badagokio, sailkapena egiaztatzeaz gain, konpromisoa har dezatela kontratua egikaritzeko behar diren giza baliabideak edo baliabide materialak jartzeko. Konpromiso horiek funtsezko kontratu-betebeharrak dira 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta adjudikaziodunak konpromiso horiek betetzen ez baditu zigorrak ezartzea ekar dezake 192.2 artikuluan adierazitakoaren arabera.

16. baldintza. Prozedura.

Kontratazio hau babesten duen espedientea **ezaugarri partikularren taulako 3. atalean** ezarrita dago.

Baldintza-agiri honetan aipatzen den kontratua **ezaugarri zehatzen taulako 3.1 eta 3.4 ataletan** adierazitako moduan esleituko da.

17. baldintza. Publizitatea.

Kontratuen lizitazioa Euskadiko Kontratazio Plataforman argitaratuko da (http://contratacion.euskadi.eus /), eta, gainera, erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, hori guztia 9/2017 Legearen 63. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratazio Organoak Internet bidez soilik zabalduko du bere kontratatzaile-profila, bere kontratu-jarduerari buruzko informazioa eta dokumentuak biltzen dituen elementu gisa, gardentasuna eta sarbide publikoa ziurtatzeko. Kontratatzailearen profilera sartzeko modua **ezaugarri partikularren taulako 19.1 atalean** deskribatutakoa izango da.

Kontratatzailearen profileko informaziorako sarbidea librea izango da, eta ez da beharrezkoa izango aldez aurretik identifikatzea.

Kontratuei buruzko informazioaren kasuan, Kontratazio Organoak honako hauek argitaratuko ditu:

a) Kontratua justifikatzeko memoria, zerbitzu-kontratuen kasuan baliabide nahikorik ez izateari buruzko txostena, kontratua adjudikatzeko erabilitako prozeduraren justifikazioa prozedura irekiaz edo murriztuaz bestelako prozedura bat erabiltzen denean, kontratua arautu behar duten administrazio-baldintza partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria edo, hala badagokio, dokumentu baliokideak, eta espedientea onartzeko dokumentua.

b) Kontratuaren helburu zehatza, iraupena, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta esleipenaren zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.

c) Aldez aurreko informazioari buruzko iragarkiak, lizitazioen deialdiei buruzkoak, kontratuen adjudikazioari eta formalizazioari buruzkoak, aldaketen eta justifikazioen iragarkiak, proiektuen lehiaketen iragarkiak eta proiektuen lehiaketen emaitzei buruzkoak, publizitaterik gabeko negoziatuen arauetan ezarritako salbuespenekin.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

d) Hala badagokio, kontratuaren publizitatea non argitaratu den, eta argitalpen horietarako estekak.

e) Prozeduran parte hartzen duten lizitatzaileen kopurua eta identitatea, bai eta Kontratazio Mahaiak esleipen-prozedurari buruz egindako akta guztiak ere, edo, mahaiak jarduten ez badu, dagokion kontratazio-zerbitzu edo -organoaren erabakiak.

Era berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko dira kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia, adjudikazio-prozeduran atzera egitearena, esleitu gabe uztearena, errekurtsoak jartzearena eta kontratuak etetearena errekurtsoak jartzearen ondorioz.

Kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira, halaber, deuseztatutako prozedurak eta Kontratazio Organoari laguntzen dion Kontratazio Mahaiaren osaera (karguak adierazita).

Nolanahi ere, Kontratazio Organoak aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera informazioren bat baztertzea erabakitzen duen bakoitzean, espedientean justifikatu beharko du.

Lizitatzaileek beharrezkotzat jotzen dituzten kontsulta guztiak egin ahal izango dituzte beren eskaintzak egiteko, betiere **ezaugarri partikularren taulako 18. atalean** agertzen den egunera arte.

18. baldintza. Esleipen irizpideak.

Kontratu hau esleitzeko oinarritzat hartu behar diren irizpideak, bai eta haien garrantzi- eta haztapen-ordena ere, SPKLren 145. eta 146. artikuluen arabera, **ezaugarri partikularren taulako 21. atalean** zerrendatzen dira, eta hor jasotzen dira haien identifikazioa eta baita balorazio osoan duten pisua. Garrantziaren araberako ordenari dagokionez, azken pisu absolutuaren arabera sailkatuko dira, beherantz.

Ezaugarri partikularren taulako apartatu berean, hala badagokio, enpresa lizitatzaileek balorazio globalean beren eskaintzak onartzeko balio-judizio bidez kuantifika daitezkeen irizpideetan lortu behar duten gutxieneko puntuazio-muga adierazten da, 9/2017 Legearen 146.3 artikuluaren arabera. Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko gutxieneko mugara iristen ez diren eskaintzak, eta, beraz, prozeduratik kanpo geratuko dira.

Bi lizitatzaileren edo gehiagoren artean berdintasuna badago balorazio-irizpideak aplikatu ondoren, **ezaugarri partikularren taulako 21.4 atalean** berdinketa hausteko ezarritako irizpideak aplikatuko dira.

19. baldintza. Bermea.

ESKORIATZAKO Udalak, egiten dituen kontratuetan, berme bat aurkezteko eskatu ahal izango die lizitatzaileei edo hautagaiei, kontratua adjudikatu eta, hala badagokio, formalizatu arte beren eskaintzei eutsiko dietela bermatzeko, edo adjudikaziodunari, prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko, **ezaugarri partikularren taularen 9. atalean** ezartzen den bezala. Hori guztia 9/2017 SPKLren 106.etik 111.era bitarteko artikuluekin bat etorriz.

Behin-behineko bermea ez da bidezkoa izango, salbuespenezko arrazoiak daudenean izan ezik. Arrazoi horiek espedientean arrazoitu beharko dira. Beharrezkoa izanez gero, zenbatekoa

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

ezaugarri partikularren taulako 9.1 atalean zehaztuko da, eta ezingo da izan kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren 100eko 3 baino handiagoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta. Sortatan banatuz gero, lizitatzaileak eskaintza aurkeztuko duen sorten zenbatekoa bakarrik hartuko da kontuan behin-behineko bermea finkatzeko, eta ez kontratuaren aurrekontu osoaren zenbatekoa.

Behin-behineko berme horiek honela gordailutuko dira:

a) Gordailuen Kutxa Orokorrean edo kutxa horrek Ekonomia eta Ogasuneko ordezkaritzetan dituen sukurtsaletan, edo, bestela, autonomia-erkidego edo toki-erakunde kontratugileen kutxa edo establezimendu publiko baliokidean eskudiruzko bermeak direnean.

b) Idatzoharrean jasotako baloreak ibilgetzeko ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruko ziurtagiriak direnean, Kontratazio Organoaren aurrean.

Behin-behineko bermea automatikoki azkenduko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei. Nolanahi ere, behin betiko bermea eratu bezain laster itzuliko zaio behin-behineko bermea esleipendun gisa hautatutako lizitatzaileari, eta behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betiko bermeari aplikatu ahal izango zaio, edo behin betiko bermea berriro eratu ahal izango da.

Behin betiko bermea, 9/2017 Legearen 107. artikuluan ezarritakoaren arabera, obra eta zerbitzuen emakiden eta esparru-akordioen kasuetan izan ezik, eskaintzarik onenak aurkezten dituzten lizitatzaileek behin betiko bermea jarri beharko dute Kontratazio Organoaren eskura. Berme hori ezin izango da izan eskaintzarik onena aurkeztu zuen lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren 100eko 5 baino handiagoa.

Kasu berezietan, Kontratazio Organoak berme osagarri bat ezarri ahal izango du, eskainitako azken prezioaren 100eko 5era artekoa, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta. Berme osoa aipatutako prezioaren 100eko 10era iritsi ahal izango da, eta hori **ezaugarri partikularren taulako 9.2 atalean** zehaztuko da.

Kontratuaren prezioa prezio unitarioen arabera formulatzen denean, eratu beharreko bermearen zenbatekoa lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren arabera finkatuko da, BEZik gabe.

Aurreko paragrafoetan aipatzen den behin betiko bermeak kasuan kasuko kontratu espezifikoaren ez-betetzeei erantzungo die.

Behin betiko berme horiek, eskatuz gero, **ezaugarri partikularren taulako 9.2 atalean** ezarritakoaren arabera eman ahal izango dira.

III. KAPITULUA. LIZITAZIO PROZEDURA.

20. baldintza. Kontratuak prestatzea.

Kontratuen prestaketa 9/2017 Legearen 317. artikuluan 115.etik 187.era bitarteko artikuluekin lotuta xedatutakoaren arabera arautzen da.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

Kontratazio Organoak merkatu-azterketak egin ahal izango ditu, eta kontsultak egin ahal izango dizkie bertan aktibo dauden operadore ekonomikoei, lizitazioa behar bezala prestatzeko eta operadore ekonomiko horiei beren planei eta prozeduran parte hartzeko eskatuko diren baldintzei buruzko informazioa emateko.

Espedientea behar bezala justifikatuko da, eta Kontratazio Organoaren erabakiaren bidez hasiko da, kontratuaren beharra arrazoitu ondoren.

Espedienteari kontratua arautuko duten administrazio-baldintza partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria erantsiko zaizkio, eta horietan honako hauek jasoko dira:

a) Hautatutako lizitazio-prozedura.

b) Parte-hartzaileei eskatzen zaien sailkapena.

c) Gaitasun tekniko edo profesionaleko eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioko irizpideak, eta kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak, bai eta kontratua egikaritzeko baldintza bereziak ere.

d) Kontratuaren balio zenbatetsia, hura osatzen duten kontzeptu guztiak adierazita, lan-kostuak barne, halakorik balego.

e) Zer premiari erantzun nahi zaion dagozkion prestazioak kontratatuz, eta zer lotura duen kontratuaren helburuarekin, zeinak zuzena, argia eta proportzionala izan beharko baitu.

f) Zerbitzu-kontratuetan, baliabide nahikorik ez izateari buruzko txostena.

g) Kontratuaren xedea sortatan ez zatitzeko erabakia, hala badagokio.

Aurreko kasu guztietan, espedientean memoria bat jaso beharko da, proiektatutako kontratuaren bidez bete nahi diren beharrak zehazteko, bai eta kontratuaren helburua eta edukia horiek betetzeko egokiak diren ere.

21. baldintza. Itunak egiteko askatasuna.

9/2017 Legearen 34. artikuluan ezarritakoaren arabera, sektore publikoko kontratuetan edozein itun, klausula eta baldintza sartu ahal izango da, baldin eta interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren eta administrazio onaren printzipioen aurkakoak ez badira. Kontratu desberdinei dagozkien prestazioak kontratu misto batean bateratu ahal izango dira, baldin eta prestazio horiek elkarri zuzenean lotuta badaude eta osagarritasun-harremanak badituzte, eta, horren ondorioz, unitate funtzional gisa hartu eta tratatu behar badira, premia jakin bat betetzeko edo entitate kontratatzailearen berezko erakunde-helburu bat lortzeko.

22. baldintza. Proposamenak aurkeztea.

9/2017 Legearen 139. artikuluaren arabera, interesdunen proposamenak lizitazioa arautzen duten baldintza-agirietara eta dokumentaziora egokitu beharko dira, eta haiek aurkezteak esan nahi du enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen duela klausula edo baldintza guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, hargatik eragotzi gabe aldaerak onartzeari buruzko 142. artikuluan eta enkante elektroniko baten barruan prezio edo

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

balio berriak aurkezteari buruz 143. artikuluan xedatutakoa. Era berean, ezin izango du beste ezein proposamenik izenpetu beste batzuekin aldi baterako elkarte gisa agertuta, banaka egin badu, ez eta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan parte hartu ere.

Arau horiek hausteak berak sinatutako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du.

Proposamenak aurkezteko epea **ezaugarri partikularren taulako 15. atalean** ezarritakoa izango da.

Interesdunek lizitazio-iragarkian adierazitako epean aurkeztuko dituzte beren proposamenak, **ezaugarri partikularren taulako 15.1 atalean** ezarritako lekuan, prozeduraren iragarki horretan adierazitako ordua eta eguna amaitu baino lehen, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman.

Lizitatzaileek adierazi beharko dute eskaintzen barruko zein agiri, agiri-zati edo datu diren konfidentzialak, eta ez dira onartuko eskaintzaren dokumentu edo datu guztien konfidentzialtasun-adierazpen orokorrak. Konfidentziala dela argi eta garbi adierazi beharko da konfidentziala dela adierazten duen dokumentuan bertan, eta, gainera, konfidentziala izatea justifikatzen duten arrazoiak adierazi beharko dira. Ez dira konfidentzialtzat joko lizitatzaileek berariaz halakotzat kalifikatu ez dituzten dokumentuak.

23. baldintza. Proposamenen forma eta edukia.

Proposamenak baldintza-agirietan ezarritakora egokituko dira, eta haien edukia Ezaugarri Partikularren Taulako 16. apartatuan ezarritakora egokituko da.
Proposamenek HIRU (3) ARTXIBO ELEKTRONIKO izango dituzte, PDF formatuan. Bidaltzeko, PDF formatuko 3 fitxategi izan beharko dira, honela identifikatuta:

a. A artxiboa: dokumentu administratiboak.
b. B artxiboa: balio-iritzien bidez kuantifika daitezkeen irizpideak.
c. C artxiboa: automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak, eskaintza ekonomikoa barne.

Proposamenak gaztelaniaz edo euskaraz aurkeztu beharko dira. Itzulpenak modu ofizialean egin beharko dira.

"A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA: DOKUMENTO ADMINISTRATIBOAK (aurretiko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena).

1.1. Gaitasunari buruzko dokumentazioa.

Erantzukizunpeko adierazpena, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formularioaren araberakoa. Bertan, eskaintzak prestatzeko eta aurkezteko tresnan berariaz eskatzen den dokumentazioa jaso beharko da. Dokumentu horrek sinatuta eta dagokion identifikazioarekin egon beharko du, eta lizitatzaileak honako hau adierazi beharko du:

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

1. Sozietatea balio osoz eratuta dagoela eta bere helburu sozialaren arabera lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpenaren sinatzaileak proposamena aurkezteko eta sozietatea ordezkatzeko behar den ordezkaritza duela.

2. Dagokion sailkapena duela edo baldintza agirian eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala duela Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuan ezarritako baldintzen arabera.

3. Ez duela kontratatzeko debekurik, ez bere kabuz ez hedaduraz, SPKLren (9/2017) 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz.

4. Posta elektronikoko helbide bat izendatzea jakinarazpenak egiteko. Helbide hori hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera «gaitu» beharko da kontratazio-organoak jakinarazpenak haren bidez egitea erabaki duen kasuetan.

5. 9/2017 Legearen 75. artikuluaren arabera enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, kasu horietarako behar den informazioa jasotzen duena, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuaren arabera.

6. Prozeduran behin-behineko bermea eratzea eskatzen den kasu guztietan, eratu izana egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da.

7. Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, parte hartzen duen enpresa bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du, eta, bertan, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioan kasu horietarako eskatzen den informazioa jasoko da. Aurreko paragrafoan aipatzen den adierazpenaz edo adierazpenez gain, aldi baterako batuketan parte hartzen duten enpresariek batuketa hori eratzeko hartzen duten konpromisoa ere aurkeztu beharko da, 2017ko SPKLren 69. artikuluaren 3. idatz-zatian eskatutakoaren arabera.

8. Erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatuko den kasuetan, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.

9. Baldintza-agiriak kontratuaren objektua sortatan banatzea aurreikusten duenean, eskatzen diren kaudimen ekonomiko eta finantzarioko edo tekniko eta profesionaleko baldintzak sorta batetik bestera aldatzen badira, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da kaudimen-betekizun berberak aplikatzen zaizkion sorta edo sorta-multzo bakoitzeko.

10. Kaudimen ekonomikoa.

11. Gaitasun teknikoa eta profesionala.

EKAB dokumentua osorik aurkeztuta, deklaratzen da baldintza-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen direla, eta adjudikaziodun gisa proposatutakoak, esleipena egin aurretik, baldintza horien egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu D artxibo elektronikoan. Egiaztatzen ez

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

baditu, kanpoan geratuko da, eta esleipena puntuazioen hurrenkeran hurrengoari proposatuko zaio.

Kontratazio Organoak, prozeduran zehar, edozein unetan eskatu ahal izango die lizitatzaileei aurkez ditzatela EKAB agirian jasota dauden eskuratzeko baldintzen egiaztagiri guztiak edo batzuk, prozeduraren garapen egokia bermatzeko beharrezkoa denean. Nolanahi ere, aurretik aurkeztu ez badira, kontratazio-organoak eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dizkio frogagiri horiek, esleipendun izan dadin.

Aurrekontu-arloan indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera, interesdunak kontratazio-prozedura honetan parte hartzeko proposamena aurkezteak berekin dakar ESKORIATZAKO Udalari baimena ematea Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zerga-betebeharrak eta betebehar sozialak betetzeari buruz eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen direla ikusteko garaia proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da.

“B” ARTXIBO ELEKTRONIKOA: DOKUMENTAZIO TEKNIKOA, BALIO-JUDIZIOAREN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEN ARABERA.

Artxibo elektroniko horretan aurkezten den dokumentazioak balio izango du aurkeztutako eskaintzek baldintza teknikoen agirian eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko eta dokumentu honen **ezaugarri berezien taulako 21. atalean** zehazten diren kontratua adjudikatzeko irizpideak aztertzeko eta haztatzeko, eta bertan ezin izango da agertu prezioari buruzko dokumentaziorik.

Eduki guztiak ahalik eta gehien zehaztu beharko dira, lizitatzaileak egiten duen proposamena zalantzarik gabekoa izan dadin.

SPKLren 133. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio-organoak ezin izango du enpresaburuek eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jo duten informazioa zabaldu, eta horrek eragina izango du, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialetan, eskaintzen alderdi konfidentzialetan eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziotan. Hori dela eta, lizitatzaileek, hala badagokio, beren eskaintzaren zer alderdi diren konfidentzialak zehaztu beharko dute.

ESKORIATZAko Udalak, adjudikazioaren aurretik nahiz ondoren eta kontratuak irauten duen bitartean, artxibo elektroniko guztietan sartutako dokumentuen edukia egiazkoa dela egiaztatu ahal izango du, eta enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak badira, kontratua deuseztatu ahal izango da, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetze batengatik, eta ESKORIATZAKO Udalari kalte-ordaina eman beharko zaio eragindako kalte-galerengatik.

Lizitatzaileek aldaerak edo alternatibak aurkeztu ahal izango dituzte, baldin eta lizitazio-iragarkiak eta baldintza-agiri honetako **ezaugarri zehatzen taulako 15.4 atalak** hala

baimentzen badute. Kasu horretan, baldintza teknikoen agirian zehaztuko da zer elementuri eta zer baldintzatan baimentzen den aldaerak edo alternatibak aurkeztea.

"C" ARTXIBO ELEKTRONIKOA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEKEEN ESKAINTZA TEKNIKOA.

Artxibo horretan, eskaintza ekonomikoa eta lizitatzaileak eskainitako proposamenari buruzko gainerako dokumentuak sartu beharko dira, baldin eta ondorengo ebaluaziokotzat jotzen badira, formulak aplikatuta automatikoki ebaluatu daitezkeelako.

Zenbatekoa eskaintza ekonomikoaren zenbakiari dagokiona izango da, eta baldintza-agiri honen **I. eranskineko** ereduaren arabera idatzita egongo da. Eskainitako prezioan sartuta egongo dira edozein zerga-arlotako gastuak, tasak eta arielak, bai eta kontratistaren mozkin industriala ere, BEZik gabe.

Ez da onartzen aurkeztutako proposamen ekonomikoaren aldaerarik edo alternatibarik aurkeztea, **ezaugarri partikularren taulako 15.4 atalean** ezarritakoaren arabera.

Ez dira onartuko honako proposamen hauek:

- Kontraesanak, omisioak, akatsak edo ezabaketak badituzte, eta, ondorioz, kontratazio-organoak eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi jakitea eragozten badute.
- Aztertutako eta onartutako agiriekin bat ez datozenak.
- Lizitazioaren gehieneko tasa gainditzen dutenak.
- Proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena dutenak.
- Ezarritako proposamen-eredua funtsean aldatzen dutenak.
- Baldin eta lizitatzaileak onartzen badu bideraezina egiten duen akatsa duela edo funtsik gabea dela.

24. baldintza. Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzea, baloratzea eta proposamenak irekitzea.

Proposamena jasotzen duten artxiboak dagokion hurrenkeran irekiko dira 145. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza-agirian ezarritako adjudikazio-irizpideak baloratzeko aplikatu beharreko metodoari jarraiki. Artxiboak Kontratazio Mahaiak irekiko ditu. Kontratazio Mahaiaren jarduketa egokitu egingo da lizitatzaileak eskaintza egitean aurkeztu behar dituen artxiboen arabera, aurreko baldintzan adierazitakoa oinarri hartuta.

Lizitatzaileak bi artxibo aurkeztu behar dituenean, balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko adjudikazio-irizpideak kontuan hartzen direlako, Kontratazio Mahaiak, ekitaldi publikoan, deklarazioa eta balio-judizio bidez balora daitezkeen irizpideak dituen artxiboa irekiko du. Artxibo horretako dokumentazioa Kontratazio Organoaren zerbitzu teknikoei bidaliko zaie, txostena egin dezaten. Jendaurreko ekitaldia amaitutakoan, bilkura berean, Mahaiak lizitatzaileek aurkeztutako deklarazioa kalifikatuko du.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

Kontratazio Organoak, behar besteko aurrerapenarekin, kontratatzailearen profilean argitaratuko du automatikoki balora daitezkeen irizpideen eskaintzak irekitzeko eta irakurtzeko ekitaldi publikoaren data. Mahaiak, ekitaldi publiko berri honetan, onartu diren proposamenak, baztertu direnak eta azken horiek ez onartzeko arrazoiak adieraziko ditu. Era berean, balio-judizioaren bidez balora daitezkeen esleipen-irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da, eta, azkenik, automatikoki balora daitezkeen irizpideak ireki eta irakurriko dira. Jendaurreko ekitaldia amaitutakoan, bilkura berean, Mahaiak, hala badagokio, baldintza-agiriko eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, eskaintzak ebaluatu eta sailkatuko ditu. Ustez anormaltasuna duten eskaintzak identifikatzen badira, Mahaiak 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, baina lizitatzaileari bere eskaintza justifikatzeko eman dakiokeen gehieneko epea ezin izango da 5 egun baliodunetik gorakoa izan, dagokion jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita.

Ondoren, Mahaiak puntuazio onena lortu duen lizitatzailearen aldeko adjudikazio proposamena egingo du. Adjudikaziodun gisa proposatutako lizitatzaileari dagokionez, Mahaiak Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatuko du enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalmen nahikoa duela, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa duela edo, hala badagokio, dagokion sailkapena duela eta kontratatzeko inolako debekurik ez duela. Era berean, mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresari eskatuko dio adjudikaziorako beharrezkoa den dokumentazioa eta, hala badagokio, Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein agiri.

25. baldintza. Kontratua esleitzea.

Dokumentazioa aztertu eta proposamenak sailkatu ondoren, Kontratazio Mahaiak egokien iritzitako esleipen-proposamena helaraziko dio kontratazio-organo eskudunari.

Eskaintzen artean berdinketa gertatzen bada, **ezaugarri partikularren taulako 21.4 atalean** aurreikusitako irizpideak aplikatuko dira berdinketa hausteko. Horretarako, Kontratazio Organoaren zerbitzuek dagokien dokumentazioa eskatuko diete eragindako enpresei.

Berdinketarik ez badago, kontratazio-organoak eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio zazpi egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako dokumentazio hau aurkez dezala jatorrizkoekin edo kopia konpultsatuekin:

1. Enpresaburuaren nortasuna eta jarduera-eremua egiaztatzen duten agiriak. Enpresa pertsona juridikoa bada, nortasuna egiaztatuko da eraketa- edo, hala badagokio, aldaketa-eskritura aurkeztuz, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, aplikatzekoa den merkataritza-legeriaren arabera betekizun hori eska daitekeenean. Baldintza hori eskatzen ez bada, jarduteko gaitasuna eratze-eskritura edo -agiriaren, estatutuen edo sortze-aktaren bidez egiaztatuko da. Agiri horretan jarduera arautzen duten arauak jasoko dira, eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

2.- Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak, hala badagokio. Beste baten izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek lizitatzailearen ordezkariaren ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute.

Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroko inskripzio-ziurtagiri eguneratua aurkezteak baldintza honen 1. eta 2. puntuetan eskatutako dokumentazioa aurkeztetik salbuetsiko du lizitatzailea. Hala ere, erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko da, bertan egiaztatzen diren inguruabarrak ez direla aldatu adierazteko.

3.- Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta profesionala edo teknikoa. Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzea, lizitazio-iragarkian eta baldintza-agiri honetan zehazten diren bitartekoen bidez.

Aldi baterako enpresa-elkarteetan, kaudimena zehazteko, elkarte horietako kide bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira.

Kaudimena kanpoko baliabideen bidez egiaztatzeko, kontratua gauzatzeko bitarteko horiek benetan badituela frogatu beharko da, eta, horretarako, erabiltzeko konpromisoaren agiria erakutsi beharko da.

Lizitatzaileak bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztutako baliabide berekin egikarituko du kontratua. Aurreikusi ezin diren arrazoiengatik soilik ordeztu ahal izango ditu, kaudimen baliokidea duten beste bitarteko batzuekin eta ESKORIATZAKO Udalaren baimenarekin.

4.- Kalitatea bermatzeko eta ingurumena kudeatzeko arauak betetzea. EKAB agirian hala aurreikusten bada, lizitatzaileak bertan adierazitako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

5.- Kontratuaren helburu den prestazioa gauzatzeko enpresa- edo lanbide-gaikuntza.

Kontratatzeko gaitasun legez eska badaiteke, kontratu honen helburu den prestazioa egiteko enpresa- edo lanbide-gaikuntza egokia egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

6.- Ekonomia-jardueren gaineko zergari lotutako jarduerak egiten direnean: alta, uneko ekitaldikoa, edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, eta, hala badagokio, salbuetsita egotearen erantzukizunpeko adierazpenarekin batera.

7.- Kontratua gauzatzeko erabiliko dituzten edo atxikiko dituzten baliabideak benetan erabilgarri dituztela egiaztatzen duten agiriak.

8.- Hala badagokio, bidezkoa den behin betiko bermea eratzea.

9.- Adjudikaziodunak azpikontratatu nahi dituen enpresekin azpikontratazioa egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa, baldin eta kasu hori **ezaugarri partikularren taulako 7. atalean** adierazi bada. Dagokionaren arabera, adierazpen bat aurkeztu beharko du, azpikontratatuko duen kontratuaren zatia adierazten duena, zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila adierazita, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuta, bi alderdiek sinatuta, ESKORIATZAKO Udalak eskatzen duen gainerako dokumentazioarekin batera.

10. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak: organo eskudunak emandako administrazio-ziurtagiria, lizitatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duena.

11. Zerbitzuari atxikiko zaizkion langile guztien zerrenda eta horien euskara-mailari buruzko egiaztagiriak. Kontratua esleitzeko, aldez aurretik egiaztatu beharko da, ziurtagiri eta/edo Udalak egindako probaren bidez, langile horiek badutela baldintza teknikoen agirian eskatzen den hizkuntza-gaitasuna

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

Maila egiaztatu ezin duenak, Udalak horretarako deitzen duen proba egin ahal izango du, agiri teknikoetan adierazitakoaren arabera. Azken kasu horretan, proba hori egiteko eskabidea aurkeztu beharko da, enpresak errekerimendua jaso eta hurrengo 3 egun balioduneko epean, IX. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzea:

Kontratazio Mahaiak egiaztatuko du esleipendun proposatutakoak agiri bidez egiaztatzen duela parte hartzeko baldintzak betetzen dituela, eta dagozkion erakundeei eskatuko die zerga-zorrik eta Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez dagoela egiaztatzeko.

Aurreko ataletan adierazitako dokumentazio guztia epean aurkezten ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera.

Halaber, epe berean, eta SPKLren 109. artikuluan ezarritakoaren arabera, **ezaugarri berezien taularen 9.2 atalak** behin betiko bermea eratzeko betebeharra ezartzen badu, adjudikaziodunak berme hori eratu beharko du eta kontratazio-organoaren eskura jarri.

Errekerimendua ez bada adierazitako epean behar bezala betetzen, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera. Dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan esleituko du kontratua Kontratazio Organoak.

SPKLren 158. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratuaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, esleipena gehienez ere hamabost eguneko epean egin beharko da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik hasita. Kontratua esleitzeko irizpide bat baino gehiago hartu behar badira kontuan, edo irizpide bakarra erabilita, hori bizi-zikloaren kostu txikiena bada, esleipena egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzen direnetik hasita.

Aurreko paragrafoan adierazitako epeak hamabost egun baliodunez luzatuko dira balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzei buruz SPKLren 149.4 artikuluan aipatzen diren izapideak bete behar direnean.

Esleipena ez bada adierazitako epeetan egiten, lizitatzaileek eskubidea izango dute beren proposamena erretiratzeko eta, hala badagokio, jarritako bermea itzul dakien.

Inolaz ere ezingo da irabazlerik gabe utzi lizitazio bat baldintza orriko irizpideen arabera onargarria den eskaintzaren edo proposamenen bat dagoen bitartean.

Adjudikazioak arrazoitua izan beharko du, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman integratutako kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta, hala badagokio, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.

Jakinarazpenak SPKLren 151.2 artikuluan zehaztutako informazioa jaso beharko du. Esleipenaren arrazoiei aplikatuko zaie aipatutako lege-testuaren 133. artikuluan jasotako konfidentzialtasun-salbuespena.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

Nolanahi ere, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean zehaztuko da esleipena zer epetan formalizatu behar den 2017ko SPKLren 153. artikuluaren arabera.

Erabat deusezak izango dira jarduteko gaitasunik edo beharrezko kaudimenik ez duten pertsonei edo SPKLren 71. artikuluan jasotako debekuren bat dutenei esleitutako kontratuak.

26. baldintza.- Kontratua egiteari uko egitea.

ESKORIATZAKO Udalak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko edo adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakia kontratua formalizatu aurretik hartu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik eta SPKLren 152. artikuluan ezarritako baldintzekin bat etorriz.

27. baldintza.- Kontratua burutzea eta kontratuaren forma.

ESKORIATZAKO Udalak egiten dituen kontratuak formalizatuta burutzen dira. Formalizazio hori Euskadiko Kontratazio Publikoko Organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratuak beren Kontratazio Organoaren egoitza dagoen lekuan egindakotzat joko dira, kontratuan bertan beste zerbait adierazten ez bada.

ESKORIATZAKO Udalak ezin izango du ahoz kontratatu, salbu eta kontratua larrialdikoa bada eta hala egiaztatzen bada.

Kontratazio arloan errekurtso berezia jar dakiekeen kontratuak 153.3 artikuluan ezarritako epean formalizatu beharko dira, hau da, adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro ondoren. Gainerako kasuetan, gehienez ere hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da kontratua, lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena 151. artikuluan aurreikusitako moduan jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Formalizatzen den kontratuari, onartutako eskaintzaz gain, baldintza partikularren agiri honen eta baldintza teknikoen agiriaren ale bat erantsiko zaio, eta kontratuaren zatitzat hartuko dira ondorio guztietarako.

Kontratua formalizatzeko agiria pribatua izango da beti; hala ere, eskritura publikoan formalizatuko da kontratistak hala eskatzen duenean, eta bere kontura izango dira kontratua egiteak dakartzan gastuak.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada adierazitako epean formalizatu, ESKORIATZAKO Udalak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, interesdunari entzun ondoren. Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada adierazitako epean formalizatu, ESKORIATZAKO Udalak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, interesdunari entzun ondoren. Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak ESKORIATZAKO Udalari egoztekoak badira, berandutzeak eragin diezazkiokeen kalte-galeren kalte-ordainak emango zaizkio kontratistari.

28. baldintza. Kontratuaren edukia.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

Baldintza-agirietan jasota egon ezean, ESKORIATZAKO Udalak egiten dituen kontratuek nahitaez jaso beharko dituzte, 9/2017 Legearen 35. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako aipamen hauek:

- Alderdien identifikazioa.
- Sinatzaileek kontratua sinatzeko duten gaitasunaren egiaztapena. Kontratuaren helburuaren definizioa.
- Kontratuari aplikatu beharreko legeriaren aipamena.
- Prezio zehatza, edo hori zehazteko modua.
- Kontratuaren iraupena edo kontratua gauzatzen hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak, bai eta luzapenaren edo luzapenen iraupena ere, aurreikusita badaude.
- Prestazioak jasotzeko, entregatzeko edo onartzeko baldintzak. Ordaintzeko baldintzak.
- Zein kasutan den bidezkoa kontratua suntsiaraztea.
- Prezioa ordaintzeko erabiliko den aurrekontu-kreditua edo kontabilitate-programa edo -errubrika.
- Hala badagokio, kontratistari ezartzen zaion konfidentzialtasun-eginbeharraren hedadura objektiboa eta denborazkoa.

Kontratu-agirian ezingo da ezarri baldintza-agirietan ezarritakoez besteko eskubide eta betebeharrik alderdientzat; baldintza-agiririk ezean, adjudikaziodunaren proposamenean edo kontratua adjudikatzeko egintzan zehaztuko dira alderdien eskubide eta betebeharrak, prozeduran egindakoari jarraituz.

IV. KAPITULUA KONTRATUA EGIKARITZEA

29. baldintza. Kontratua egikaritzea eta betetzea.

9/2017 Legearen 197. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da kontratua.

Kontratua gauzatzeko, zorrotz bete beharko dira baldintza zehatzen agiri honetako estipulazioak, baldintza teknikoen agiria eta Kontratazio Organoaren jarraibideak.

ESKORIATZAKO Udalak noiznahi eta nahi beste aldiz ikuskatu ahal izango du kontratuaren egikaritzapena. Kontratuaren arduradunak edo Kontratazio Organoak izendatutako teknikariek egingo dute ikuskapena, eta dagozkien txostenak helaraziko dizkiote, hala badagokio, esleipendunari dagozkion jarraibideak eman diezazkion.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeko egin beharrekoen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztien kalte-ordaina ematea.

Kontratua betetzat joko da kontratistak prestazio osoa egin duenean, kontratuko baldintzen arabera eta ESKORIATZAKO Udalaren nahierara.

Kontratuak gauzatzeari eta betetzeari dagokionez, 9/2017 Legean kontratu mota bakoitzerako xedatutakoa aplikatuko da.

30. baldintza. Kontratistari eska dakizkiokeen betebeharrak.

Kontratu honen araubide juridikotik eratorritako betebehar orokorrez gain, kontratistak honako betebehar hauei eta formalizatzen den kontratuan berariaz ezartzen direnei erantzungo die bereziki:

Kontratista izango da egindako prestazio, obra, zerbitzu eta horniduren kalitatearen erantzule, bai eta kontratua gauzatzean egindako omisioek, akatsek, metodo ezegokiek edo ondorio okerrek ESKORIATZAKO Udalari edo hirugarren batzuei eragindako ondorioen erantzule ere.

Kontratistak kontratua egikaritzeko behar diren langileak izango ditu. Langile horiek esleipendunaren mende egongo dira esklusiboki, eta hark izango ditu enplegatzaile gisa dagozkion eskubide eta betebehar guztiak haiekiko, eta ESKORIATZAKO Udala lan-harreman horietatik kanpo egongo da. Kontratistak, ESKORIATZAKO Udalak eskatuta, berehala ordezkatuko ditu behar diren langileak, kontratua egikaritzea ziurtatuta gera dadin beti.

Kontratua egikaritzeko erabiliko dituen langileei dagokienez, kontratistak indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, batez ere lan eta zerga arloko legeriari, Gizarte Segurantzari eta laneko arriskuen prebentzioari dagokienez. Betebehar hori kontratua egikaritzen den bitartean eta kontratua iraungi arte aldarrika daitezkeen arauetara hedatzen da, eta kontratistak une oro egokitu beharko ditu bere jarduketak arau horietara, eta ESKORIATZAKO Udalaren esku jarri beharko ditu eskatzen zaizkion mota horretako egiaztagiri guztiak, bereziki langile guztien TC1 eta TC2 buletinak aurkezteari dagokionez, horiek egiaztatzeko. Horretarako, dagozkion betetze-auditoretzak antolatuko dira.

Nolanahi ere, enpresa adjudikaziodunak kontratu hau egikaritzeko erabiltzen dituen pertsona guztiek kontrol- eta segurtasun-arauak bete beharko dituzte, baita kontratuan ezarritako antolamendu- eta konfidentzialtasun-arauak ere, eta beren gain hartuko dute kontratuaren helburua behar bezala betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren jarduketa edo jarduera guztiak egiteko betebeharra, arau horiek zorrotz betez.

Kontratistak bere gain hartzen du agiri honen helburuari aplika dakiokeen eta une bakoitzean indarrean dagoen sektoreko hitzarmen kolektibotik eratorritako betebeharrak betetzeko betebeharra, eta, bereziki, langileen eskubide sozial eta ekonomikoei buruzkoak.

Kontratuaren ondoriozko gastu guztiak esleipendunak ordainduko ditu, gastu fiskalak barne.

Kontratistak eta bere langileek isilpean gorde beharko dituzte kontratuaren helburuarekin zerikusia duten datu edo aurrekariak, publikoak edo agerikoak ez direnak, kontratuaren ondorioz ezagutu badituzte.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

Nolanahi ere, kontratistak bere gain hartzen du datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudia errespetatzeko betebeharra, eta 9/2017 Legearen 133. artikuluan jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira.

Kontratua amaitzean, behar bezala beteta badago eta HILABETE BATEKO (1) berme-epea igaro ondoren, Kontratazio Organoak behin betiko bermea itzultzeko edo ezerezteko erabakia hartuko du, hura eratzea nahitaezkoa izan bada. Epe horretan egiaztatzen bada lanetan akatsak daudela, Kontratazio Organoak eskubidea izango du akats horiek zuzentzeko erreklamatzeko.

Berme-epea igaro eta Udalak ez badu eragozpenik jarri, kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango egindako prestazioari dagokionez.

Hizkuntza betebeharrak

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua.
- Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta hori garatzen duten arauak.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa
- Eskoriatzako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, 2025eko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran onartua.

2/2016 Legeak, bere 7.8 artikuluan, eskumena aitortzen die udalei zehar-kudeaketa moduan ematen diren zerbitzuen kontratuetan hizkuntza klausulak sartzeko helburu honekin: udalari exijitu ahal zaizkion hizkuntza baldintza beretan ematea zerbitzua.

Lege horrek ezarritakoarekin bat etorriz, 179/2019 Dekretuak, bere 36.3 artikuluan, xedatzen du Euskadiko toki-entitateek hizkuntza bien ofizialtasunaren araubidea betearaziko dutela kontratu publikoetan, eta, kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak ezarriko dituztela administrazio-baldintza partikularren agirietan.
36.8 atalean, gainera, herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, hauxe bermatu beharko dela zehazten du:

a) *Enpresa esleipendunak hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri beharko ditu lanpostuetan. Alderdi hori kontratuko administrazio-baldintza partikularren agirietan egongo da jasota.*

Norabide berean, 19/2024 Dekretuak, 2.6 artikuluan, ezartzen du kontratazio publikoko prozeduretan adjudikaziodun gertatzen diren pertsona fisikoei eta entitateei dekretu bereko 2. atalean zehaztutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak aplikatuko zaizkiela, eta 13 artikuluan, kontratazio publikorako prozeduretan aplikatu beharreko irizpideak zehazten ditu:

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

1-b)- Kontratazio-prozeduraren objektua baldin bada herritarrei zuzendutako prestazio bat edo hura gauzatzean herritarrekin harreman zuzena ezartzen bada, herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean emango zaie arreta, eta, gainera, herritar hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko moduko baldintzetan emango da prestazioa.

2.- Horrenbestez, kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira. Edonola ere:

a) Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.
b) Udalarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez (zehaztasunak, baldintza teknikoetan).
c) Esleipendunak euskara eta gaztelania erabiliko ditu eskaintzen duen zerbitzua emateko sortzen diren ahozko zein idatzizko harreman guztietan (oharrak, inprimakiak, ordainagiriak, kirol jarduerak,…), euskarazkoari lehentasuna emanez (zehaztasunak, baldintza teknikoetan). Edonola ere, 16 urtetik beherako haur eta gazteei zuzendutako zerbitzuak euskaraz izango dira.

3.- Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz.

4.- Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena: Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen udal arloak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari.

5.- Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

31. baldintza. Kontratua luzatzea.

Kontratua luzatzeko aukera ezaugarri partikularren taulako 4.2 atalean ezarritakoaren arabera ezarriko da, betiere Kontratazio Organoaren berariazko erabakiaren bidez.

Luzapena bidezkoa izango da, baldin eta kontratuaren ezaugarriak ez badira aldatzen kontratuak irauten duen bitartean, 9/2017 Legearen 29. artikuluak xedatzen duen bezala.

Esleipendunak kontratua gauzatzeko finkatutako guztizko epearen barruan bete behar du kontratua. Epe horretan, hasierako epea, aurreikusten diren ondoz ondoko luzapen-aldiak eta 9/2017 Legearen 29.4 artikuluan kontratu bat amaitzean beste bat formalizatu ez denerako aurreikusitako aldia sartuko dira.

32. baldintza. Kontratuaren betearazpenaren ebaluazioa eta zigorrak.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

Ebaluazioaren helburua kontratua egikaritu den neurtzea izango da, baldintza teknikoen agirian eta enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzan ezarritako irizpideak betetzen diren ala ez baloratuz. Ebaluazio hori egiteko eta haren jarraipena egiteko, arduradunak izendatuko dira, eta haiek arduratuko dira txosten bat egiteaz, zehazten den aldizkakotasunarekin.

Kontratazio Organoak, kontratua gauzatzen dela gainbegiratzeko ardura duen pertsonak proposatuta, bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo zigorrak ezartzea, 9/2017 Legearen 192. artikuluan ezarritako moduan eta baldintzetan, adjudikaziodunak berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik egindako faltengatik, baldintza-agirietan edo indarrean dauden xedapen aplikagarrietan ezarritakoa ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik.

Zigorra ezartzeak ez du baztertzen kontratistari egotz dakizkiokeen kalte-galerengatik ESKORIATZAKO Udalak kalte-ordaina jasotzeko izan dezakeen eskubidea. Oro har, eta kontratu bakoitzaren tipologiaren arabera, penalizazioak aplikatzerakoan oso kontuan hartuko dira kontratistaren ez-betetzeak ondorengo arrazoiengatik:

- Enpresa esleipendunak ez betetzea edo behar bezala ez betetzea esleitutako edozein zeregin.
- Esleitutakoak baino kalitate txikiagoko materialen hornidura, akats eta/edo hausturekin.
- Zerbitzu bat kudeatzeari uko egitea.
- Kontratua behar bezala gauzatzean edo epeen mende dauden estipulazioak betetzean gerta daitezkeen atzerapenak.
- Kontratistak ez betetzea hartutako konpromisoa kontratuari atxikitu beharreko giza baliabideen eta baliabide teknikoen aldetik.
- Enpresa esleipendunak hitzemandako ordutegiak eta maiztasunak ez betetzea.
- Kontratatutako zerbitzuaren kudeaketaren ondorioz erabiltzaileengandik jasotako erreklamazioen kopia ez bidaltzea ESKORIATZAKO Udalari.
- Eskaintzan hitzemandako hobekuntzak ez egitea.
- ESKORIATZAKO Udalarekin adostutako fakturazio-irizpideak ez betetzea.

Penalizazioak ezartzea erabakiz gero, mailaka ezarriko dira, honela banakatuta:

- Ageriko lehen desadostasunak ohartarazpena ekarriko luke.
- Bigarren desadostasun nabarmenak kontratuaren aurrekontuaren % 1eko zigorra ekarriko luke.
- Hirugarren desadostasun nabarmenak kontratuaren aurrekontuaren % 2ko zigorra ekarriko luke.
- Laugarren desadostasun nabarmenak kontratuaren aurrekontuaren % 3ko zigorra ekarriko luke.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

- Bosgarren desadostasun nabarmenak kontratuaren aurrekontuaren % 4ko zigorra ekarriko luke, eta kontratua suntsiarazteko aukera.

Aurreko kasuetan, zehapen ekonomikoa alde batera utzita, esleipendunak berehala zuzendu beharko ditu kontratua egikaritzerakoan izandako anomaliak.

Nolanahi ere, eta 9/2017 Legearen 192.1 artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, zigorrek ez-betetzearen astuntasunarekiko proportzionalak izan beharko dute, eta horietako bakoitzaren zenbatekoak ezin izango du kontratuaren prezioaren % 10 gainditu, BEZik gabe, eta zigorren guztizkoak ezin izango du kontratuaren prezioaren % 50 gainditu.

33. baldintza. Fakturazioa eta ordaintzeko modua.

Kontratistak eskubidea du hitzartutako prezioen arabera, egindako kontratuari, onartutako aldaketei eta Udalak emandako aginduei jarraituz benetan egiten dituen lanak ordain dakizkion.

Zerbitzua hilero ordainduko da, dagozkion fakturak aurkeztu eta zuzen daudela ikusi ondoren, eta betiere, dagokion teknikariak lanak zuzen egin direla onetsi ondoren.

Prezioa 2017ko SPKLren 198. artikuluan ezarritako epeen barruan ordainduko da.

Ordainketa egiterakoan lau hilabete baino gehiagoko berandutzea egongo balitz, kontratistak, hala nahi izanez gero, kontratua bete gabe utz dezake. Horrela eginez gero, horren berri eman beharko dio Administrazioari hilabete aurretik, bete gabe uzte horretatik sor daitezkeen eskubideak aitortzeko 2017ko SPKLren ezarrita bezala.

Administrazioa sei hilabete baino gehiago berandutuko balitz ordainketan, kontratistak eskubidea izango du kontratua suntsiarazteko eta horren ondorioz izan ditzakeen kalteen ordaina jasotzeko.

Kontratista abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduko (2014/12/09ko 234. GAO) 2. artikuluan aurreikusitako pertsona juridikoren bat baldin bada, dagokion faktura modu elektronikoan aurkeztu beharko du. Faktura elektronikoa erabiltzera derrigortuta ez dagoenak ere borondatez erabili ahal izango du.

Faktura elektronikoa: Fakturak formatu elektronikoan bidali beharko dira Gipuzkoako fakturen sarrera puntu orokorraren (FSPOe) bidez https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua

Unitate organikoen DIR3 kodigoak:

Eskoriatzako Udala

Organo kudeatzailea: L01200343

Unitate izapidegilea: L01200343

Kontabilitate bulegoa: L01200343

34. baldintza. Konfidentzialtasun betebeharra.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

34.1.- Konfidentzialtasunari dagokionez, 9/2017 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Kontratistak kontratua egikaritzerakoan jaso dezakeen informazioaren konfidentzialtasun izaera errespetatu beharko du baldintza agirietan edo kontratuan izaera hori eman izan bazaio edo berezko izaeraz horrela tratatu behar baldin bada.

34.2.- Enpresaburuek konfidentzialtzat jotako eta Kontratazio Organoak hala erabakitako informazioa ezingo da zabaldu. Horretarako, lizitatzaileek artxibo bakoitzean sartu beharko dute konfidentziala izatea proposatzen duten agirien zerrenda, arrazoia azalduta.

35. baldintza.- Datu pertsonalen babesa.

35.1.- Enpresa adjudikaziodunak eta haren langileek sekretu profesionala gorde behar dute kontratua betetzeagatik ezagutu dituzten datu pertsonalei dagokienez. Betebehar horrek kontratua amaitu ondoren ere iraungo du, bat etorriz EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREKIN (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena) (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra).

35.2.- Esleipendunak prestakuntza eta informazioa eman beharko dizkie bere langileei kontratua betetzeko zereginak garatzean bete behar dituzten datuen babesaren arloko betebeharrei buruz, bereziki sekretu-betebeharretik eratorritakoei buruz. Enpresa adjudikaziodunak pertsonalki erantzungo du bere langileek betebeharrak ez betetzeagatik egin ditzaketen legezko arau-hausteengatik.

Esleipendunak eta haren langileek, kontratua betetzearen ondorioz ematen diren zerbitzuak egiten diren bitartean, zorrotz bete beharko dituzte beren lana egiten duten udal-bulegoetako segurtasun-dokumentuak.

35.3.- Esleitutako kontratuak datu pertsonalak tratatzea badakar, osorik errespetatu beharko dira baldintza honen lehen apartatuan aipatutako araudia eta hura garatzeko araudia, SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

36. baldintza. Kontratua aldatzea.

Interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango dira kontratuak, 9/2017 Legearen 191. artikuluan araututako kasuetan eta prozeduraren arabera.

Beste edozein kasutan, baldin eta beharrezkoa bada itundutakoaz bestelako modu batean egikaritzea indarrean dagoen kontratu bat, kontratua suntsiarazi egin beharko da, eta beste bat egin, dagozkion baldintzetan, eta, hala badagokio, aurretik beste lizitazio publiko bat deitu eta gauzatu beharko da, aipatutako legean ezarritakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe 213. artikuluaren 6. apartatuan xedatutakoa, kontratistak segurtasunari, zerbitzu publikoari edo

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

balizko aurriari lotutako arrazoiengatik beharrezkoak diren neurriak hartzeko duen betebeharrari dagokionez.

Kontratuaren aldaketak 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira, eta 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoaren arabera argitaratu beharko dira.

ESKORIATZAKO Udalak, kontratua burututakoan, ezusteko premiei edo kausei erantzuteko baino ezingo du aldatu, eta espedientean behar bezala justifikatu beharko du. Aldaketa horiek ezingo dituzte aldatu lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak, eta aldaketa egitea beharrezko egiten duen arrazoi objektiboari erantzuteko behar-beharrezkoak diren aldaketak baino ez dituzte egin beharko. Ondorio horietarako, kontratua lizitatzeko eta adjudikatzeko funtsezko baldintzak aldatzen direla ulertuko da 9/2017 Legearen 205.2 c) artikuluan adierazitako kasuetan.

37. baldintza. Kontratua etetea.

ESKORIATZAKO Udalak, interes publikoko arrazoiak direla-eta, kontratuaren betearazpena etetea erabaki ahal izango du. Era berean, 9/2017 Legearen 198.5 artikuluan adierazitako inguruabarra gertatuz gero, kontratistak eten egin ahal izango du kontratuaren betetzea. Kontratua etetearen ondorioak Legearen 208.5 artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

38. baldintza. Kontratua lagatzea.

Esleipendunak ezin izango die kontratua hirugarrenei laga, 9/2017 Legearen 214. artikuluan aurreikusitako baldintzetan izan ezik.

Adjudikaziodunak SPKLren 215. eta 216. artikuluetan ezarritako baldintza eta mugetan soilik azpikontratatu ahal izango ditu hirugarrenekin; zerbitzu-emakidako kontratuetan, gainera, aipatutako lege-testuaren 296. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Adjudikaziodunak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira eta ESKORIATZAKO Udalak berariaz eta aldez aurretik baimentzen badu.

Lagapen-hartzaileak ahalmena izango du ESKORIATZAKO Udalarekin kontratuak egiteko, eta eska dakiokeen kaudimena ere izan beharko du. Behar bezala sailkatuta egon beharko du, baldin eta lagatzaileari betekizun hori eskatu bazaio, eta kontratatzeko debekurik ez izan.

Ez da lagapentzat joko baldin eta, kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa adjudikaziodunaren nortasun juridikoa azkentzen bada bat-egitearen, zatiketaren edo enpresa-ondarea eskualdatzearen ondorioz, eta haren posizioan geratzen badira sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo ondarearen eskuratzailea, betiere kontratatzeko gaitasunaren eta debeku-ezaren baldintzak betetzen baditu eta kaudimena eta, hala badagokio, sailkapena egiaztatzen baditu adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko baldintza partikularren agiri honetan eskatutako baldintzetan.

39. baldintza. Subrogazioa.

Manuel Muñoz kiroldegia ●Intxaurtxueta auzoa z/g ●20540 Eskoriatza ●Gipuzkoa ●Tel: 943 71 53 28 ●kiroldegia@eskoriatza.eus ●www.eskoriatza.eus

kirol zerbitzua

